

...eta!  
**K**itto!

2018-V-11

1057 zkia.

# Dantza, ikasgaia bizitzarako

T. Etxebarria, 1  
943 20 42 99

Gehien  
maite  
duzuna  
babestu!

**BIZI  
ASEGURUA**

Informazio gehiago:  
[eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

**EUKi**  
ASEGURUAK

Gure familia beti  
babestuta egongo  
denaren **garantia**



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,  
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpuru.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belautegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# Eskutitzak

– Eibarko gazte kuadrilei –

Dakizuen moduan, datorren ekainaren 10ean **Gure Esku Dago** ekimenak erabakitzeke eskubidearen alde Donostia, Bilbo eta Gasteiz giza-katea osatuz lotu nahi ditu. Ez da erronka makala...

Bide horretan, Eibartik ere pasatuko da, eta gurean ere etorkizuna modu librean erabaki nahi dugula adierazteko aukera paregabea izango dugu.

Horregatik, Eibarko gazteok gure buruari erronka gehigarri bat jarri diogu, Azitain eta Urkizu arteko kilometroa (ibilbidearen 71. km) gazteon-ka-

tea eginez lotzea. Horretarako 1.000 gazte biltzea da helburua.

**Dei egiten diegu Eibarko gazte kuadrila edo lagun talde guztiei, bihar, maiatzak 12, 12:30-ean Hirurok taberna aurreko parkean egingo dugun asanblada informatibora etortzeko.** Bertan, giza-kateari buruzko informazioa emango da: egitaraua, izena emateko bideak, materiala eskuratzeke aukerak...

Gure Esku Dago - Gazteak

– Eibar Rugby Taldearen laguntasuna eskertuz –

Ermuko Nazioarteko Elkartasun eta Lankidetzak Kontseiluak **Eibar Rugby Taldeari** gure esker ona adierazi nahi diogu, aurreko zapatuan ospatutako **Kultur-Arteko Jaian** klub horrek izan duen parte-hartze gogotsuarengatik.

Eibar Rugby Taldeak egindako ekarpena, klubaren stand-a ipiniz eta Errugbi Jokoak ekintzaren birtartez, garrantzi handikoa izan da, bat datorrelako Kontseilu honek jorratu nahi duen lan-ildoarekin: gure inguruan haur eta gazteei zuzendutako kirol,

kultura eta aisialdi ekimenetan **aniztasuna** modu aktiboan kontuan hartzea.

Izan ere, Eibar Rugby Taldea erreferente bezala ikusten dugu gizarte konpromezu honetan, eta halaxe erakutsi zuen zapatuan, klub horretako jende mordo goiz-goizetik Ermuko Plazara bertaratuz eta Jaiaren muntaian auzolanean parte hartuz, eta baita beste zereginetan ere egun osoan. Ekarpene handia Kultur-Arteko Jaia izandako arrakastan.

Ermuko Kultur-Arteko Jaiaren Elkartasun Kontseilua

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MANDATARI.** - Mandatoak, errekaduak egiten dituen. Errekadistia normalagua da Eibarren. *"Bilbora ostera dabillen mandatarixak ekarriko detsu gauza hori".*

**MANDATU.** - Enkargua, errekadua. Erreka gehiago erabiltzen da Eibarren. *"Gaztetan, Txarridunian egiten zittuan mandatuak".*

### astean esanak

"Ideien eta politikaren eboluzioari erreparatzen badiogu, oro har, ez dago argi demokrazian, askatasunean eta tolerantzian egindako aurrerapausoak erabatekoak direkin. Zientziaren eta teknologiaren alorrean ez da demokraziaren bezain dramatiko; masa kritikoa oso handia da, eta atzerabuelarik gabeak dira urratsak. Jarrera eszeptiko bat sustatzen du zientziak, eta bere burua arautzeko mekanismo bat du. Zientzia elitista da: ez da demokratikoa. Ez da bozen bidez ebazten egia zientifiko bat, eta, zerbait aldatzeko, froga sendoak behar dira"

(PEDRO MIGUEL ETXENIKE, ZIENTZIALARIA)

"Parkean gaudelarik, aniztetasun ikusten ditugu gurasoak sakelako telefonoari begira, gazteak ere bai... Haurrek hori ikusten dute; ondorioz, haiek ere eskatzen dute, eta guk ere haurrei uzten diegu, bakea emateko. Egun batean arratsalde oso bat utzi badiegu, eta hurrengo egunean ezer ez, haurrak ez du ezer ulertzen, eta nahastu egiten da. Helduak ez gara oso kontziente egiten dugun erabileraz eta, hortaz, guk ezin diegu ongi irakatsi haurrei. Askotan konturatzen gara gure haurrek asko erabiltzen dituztela, baina ez dugu gure barnera begiratzen. Beste arloetan bezala, haurren eredu gara. Azkenean, haurraren hezkuntzari buruz zerbait egiten denean, gurasoen hezkuntzari buruz ere egiten da"

(ENEKO JORAJURIA, IRAKASLEA)

"Gaur egun ez zaio gure benetako folkloeari eusten ezta biziberritzen ere. Esan diezadala norbaitek nork dantzaten dituen dantza tradizionalak! Lehengo baserriarrek bezala dantzaten dituzte? Egun, barra klasikoa asko egiten da, behin eta berriz, eta dantzatzeke modua aldatu du horrek. Gorputza aldatu egiten zaie, eta hanka ez dute lehen bezala altxatzen. Zumarragan ikusi nuenean gaizki egiten ari, eta esan zidaten Donostian horrela egiten ari direla, horrek arrakasta duelako. Folklorearen garatuz joatea da, ez izagarritzko aldaketa egitea. Garapen horretaz ez zara jabetu behar, oso txikia delako. Dantza maisua gainean ez baduzu, gauzak larregi aldatzen dira"

(SABIN EGIGUREN, DANTZARI IRAKASLEA)

**ENRIKE SOSOLA**

## Euskadi, auzolana ala auzo-lana?

Auzolanean dabilena berarentzat eta auzoarentzat ari da. Premiak bultzatutako elkarlanean dihardu, inola ez debaldeko lanean. Baserritarrok betidanik erabili izan duguna bizirauteko: basotik egurra etxeratzeko, suak erretako etxeak berreraikitzeak, uztak jasotzeko, bideak egin eta garbitzeko, mozkinak saltzeko,...

Elkarlanari esker denontzako onura dakarrren aintzinako ohitura eta oraindik errotuta dagoena. Baina gurean ere izan ohi da ardi-beltzik, nola ez.

**Auzo-lanean** (etzanekin) dabilena da hau, auzoaren bizkarretik. Disimulatzeko egingo du gogor dabilenaren plantatxo bere alferkeria agerian gera ez dadin, itxurakerian. Hori bai, esan eta esan jardungo du etengabe auzolanaren aldekoa dela. Lan kolektiboaren horren emaitzak bere egingo ditu jakina. Eta nola ez, aurrerapenik lortu ezean, "esaten nuen ba nik hori ez zela bidea" botako du ozen.

Mediterraneo aldean bizirauteko agintekeriari aurre egiten lanean ari dira jator. Bitartean, lehiazale sutsu diren hedabide handi zorperatuei hain mesedegarri zaien marketing-kampainako leloa lelo, zertan gabiltza gu haiekin, auzolanean ala *auzo-lanean*?

## Ametsa tabernak irabazi dau III. Gin Tonic lehiaketia

Aurreko barixakuan Untzagan finala jokatu eta gero, Ametsa tabernakuak irabazi dabe III. "Euskeraz Primeran!" Gin Tonic lehiaketia. Lehiaketaren hirugarren ediziñuan hamalau tabernak hartu dabe parte eta, jende aurrian jokaturako finalian Koskor eta O'Jays tabernak jardun eben

Ametsa tabernarekin lehiatzen, Oihan Vegak girotu eban ekitaldixan. Bigarren sarixa Koskor tabernarendako izan zan eta O'Jays tabernakuak, barriz, hirugarrena eskuratu eben. Bestalde, lehiaketia martxan egon zan bittartian tabernetan botua emon eben herritaren artian egindako zozketan, sarixa Josune Amilibiari tokau jakon eta barixakuan emon zetsen asteburupasa juateko txartela, finalisteri sarixak emoterakuan.

**Maialen Belaustegi**

asteko  
**2.929**  
datua

*lagun eguzen Lanbiden izena emonda apirilla amaieran: 1.693 andra (aurreko hillian baiño 51 gitxiago) eta 1.236 gizon (25 gitxiago). Azken 8 urtiotako kopururik txikiena da hori. Debabarreneko I angabetu kopuruak jarraixan behera egitten daben 8. hillia bete da.*

## Giro ederrian ospatu ziran Galiziako jaixak

**Maialen Belaustegi**

Jendetza ibilli zan asteburu osuan Urkizun, As Burgas Galiziako Etxekuak antolatutako XXXV. Dia das Letras Galegas jaixetan. Barixaku arratsaldetik hasitta domeka gaberera arte Galizia aldeko sukaldaritzak, musikiak eta dantzak bete zittuen parkia eta inguruak eta, eguraldixa lagun, askok aprobe txau eben buelta bat emon eta jaixarekin bat egitteko.

## “El viaje de Jon” liburuko protagonista Untzagan egongo da

Eibarren egoitza dakan Isekin alkartiak gaixotasun arraruak dittuen umieri laguntzeko liburu pertsonalizatuak argitaratzen ditu eta bixar “El viaje de Jon” izenburukua aurkeztuko dabe Untzagan, 12:00xetatik 14:30xetara. Guillermo de los Mozosek idatzi eta Miriam Raya Garciaen marrazkixak dittuan liburuko protagonista Jon del Portillo, 11 urteko umia da. Bartzelonako ume honek muskulueri eragiten detsen gaixotasun degeneratibua dauka eta, horren eragiñez, erroberadun aukixan ibilli bihar da. Eibartik kanpora bizi dan arren, umiak Eibar football taldiari oin dala urte asko, Bigarren maillan eguanetik segitzen detsa eta talde armagiñaren zaletu haundixa da. Horregaittik, ahal daben guztietan taldiaren partiduak ikustera juaten da eta bixar Eibarrera etorriko da, lpuruan denboraldixari agur esateko jokatuko dan partiduan bere taldia animatzera, baiña aurretik Untzagan ipiñiko daben karpan egongo da, liburua aurkezten eta nahi dabeneri siñatzen.



## Eguzkixa lagun, ederto ospatu zittuen Santa Kurutz jaixak asteburuan




Maialen Belaustegi

Zoragarri pasau eben asteburua Santa Kurutz jaixak izen bereko ermita inguruan ospatzera animau ziranak. Programaren barruan antolatu dittuen ekitaldi gehixenak zapatuan eta domekan izan ziran. Egun bixetako mezekin batera, musikia, dantzak, jolasak eta bestelako kirol ekitaldiak bete eben Santa Kurutz egunaren osteko asteburua.

## autuan

### ERREBAL BARRIKO IZENA

Gaur emongo dittue ezagutzera Errebalen eraikiko daben erabillera anitzeko gunearen izena eta irudixa. Horren harira martxan ipiñitako parte-hartze prozesuaren barruan, oin dala egun batzuk herritarrei botua emoteko aukeria emon zetsen eta gaur zenbatu bihar zittuen botuak, jendiaren aurrian, 11:30xetan pleno aretuan egindako ekitaldixan.



### 1958-XAN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotakuak bazkarixa egingo dabe urriaren 27xan. Jaixarekin bat egin nahi dabenak 80 euro sartu biharko dittu ES95 2095 5035 01 9117894721 kontuan. Informaziño gehixago nahi izanez gero 688646551 (Ina) telefonora deittu leike.



Funeraria-Ehortzetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b>                  Funeuskadi Eibar:                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b>                  SIGMA Industrialdea                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b>                  943 20 19 51   <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

**CAPI** Bidebarrieta, 5  
 943 201 547  
[www.capiestetica.es](http://www.capiestetica.es)

**Coolifting®**

Lifting tratamendu **BERRIA!**



BETILE LUZAPENAK / LIFTING

**GORPUTZ TRATAMENDUAK**

**PROGRAMA BERRIAK**

Tratamendu drainatzaile eta birmodelatzailearen  
**4 salorako bonoak**

Masajeak

Powered by **BODY**




Ipini zaitetz sasoi onean ...

**Hileroko bonoak**

... astero bakarrik 20 minutu eginez

Pertsonalizatua

## herriko kaleei begirada



### OTAOLA

egilea:  
XABIER BADIOLA

Dibujo Eskolarekin elkarlanean



## Mundu guztiarendako zabalduko dittue Museoko atiak

Museoen Nazioarteko Eguna da maiatzaren 18xa. Aurtengo gai edo goiburua "Museo hiperkonektatuak: Enfoke berriak, Publiko berriak" izango da eta Armagintzaren Museoa bat egingo dau ospakizun horrekin, bisitatu nahi daberen guztiendako atiak zabaldu. Batetik, maiatzaren 17, 18, 19 eta 20an museuan sartzia doakoa izango da, ohiko ordutegixan. Eta, horrez gain, 360 graduko bisita birtuala garatu dabe, argazkixekin, "gure espaziuak birtualki esperimentatu eta gure altxorretako batzuk deskubridu" nahi dittuenendako. Bisita birtuala egituko [www.armia-eibar.eus](http://www.armia-eibar.eus) web orrixan sartu biharko da. Bestalde, urte osuan ikusi leikian erakusketia eza-gutzeko doako bisita gidatuak eskinduko dittue maiatzaren 19xan (17:00etan euskeraz eta 18:30xetan gazteleraz). Parte hartzeko izena aurretik emon bihar da, 943708446 telefonora deittuta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzitta.

## La Salle Astia eta ikasleri agurra

Apirillaren 23tik 27ra bitartian ospatu eben La Salle Astia Eibarko ikastetxe bixetan, Isasikuan eta Azitainguan. Eskola bixetan olinpiadak jokatu zittuen astian zihar eta azken egunian, barriz, jaialdixarekin agurtu eben astia.

Bestalde, Azitaingo ikastetxeko Hezkuntza Alkartiak bixar agurtuko dau ikasurtia, horretarako antolatu daberen ekitaldixan: 2017-2018 ikasturtian 2. Batxilergua ikasi dabeneri agurra 11:00etan hasiko dabe



## Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketia

Herriko balkoi dotorienak saritzeko lehiaketia antolatu dau Udalak, Debegesarekin alkarlanian. Parte hartu nahi daberen aurretik izena emotia eskatzen dabe eta horretarako azken eguna maiatzaren 15a izango da (etxe guztietara banatu daberen orrixa bete eta Pegoran entregau bihar da edo, bestela, interneten eibar.eus helbidian be eskuratu leike). Epaimahaixak uztaillian begiratuko dittu lehiaketarako izena emon daberen balkoi eta leihoak eta irabazliendako hainbat sari banatuko dittue.



eta, bestiak beste, eukaristia, ekitaldi akademikua eta piskolabisia egingo dittue. Ikastetxeko arduradunak ikasliak zoriondu nahi dittue, "honaiño aille-gatziagaittik!".

## Martitzenian ospatuko dabe San Isidro eguna Arraten

Debabarreneko Landa Gara-penerako Debemen alkartiak, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Soralezeko udalak eta Itziar entidade txikixak lagunduta, San Isidro eguna ospatzeko programia antolatu dau aurten be. Goizeko 11:00etako meza nagusixarekin hasiko dabe eguna eta bertan, Joxe Salegi "Lizarreta" eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolarixak eta Baltzola Anaiak trikitalarixak hartuko dabe parte. Mezia amaittu eta gero, aureskua eskinduko dabe Kezka dantza taldekuak eta jarraixan prozesiñua egingo dabe. Horrekin batera, gure eskualdeko produktuak probatzeko dastaketia egingo dabe: Sagarmiña "Getariko Txakoli-

na", Flysch "Getariko Txakolina", Txidurri Iturri sagardua, Mausitxa, Sosola, Egixa eta Goienetxen gaztaiak eta libre hazittako Basatxerri ezaugarrixa daken txerrikixak jateko aukeria egongo da. Alkidebak eta Eibar K.E.-ak babestuta jokatuko dan San Isidroetako XVI. Aizkolari Txapelketia 12:30xetan hasiko da. Parte hartuko daben aizkolarixak Arria V.a, Azurmendi, Larretxea, Telletxea, Alex Txikon eta Hodei Ezpeleta dira eta, tartekaturik, harrijasotzaillik saiua egingo dabe. Joseba Ostolaza eta Udane Ostolaza aita-alabak eta Hodei Izeta IV.a eta Jakes Izeta V.a aitta-semiak jardungo dabe. Basarritarrak Kantabria jatetxian baz-



Herri-kirolek tarte handia izango dute martitzenian. Maialen Belaustegi

kalduko dabe, 14:30xetan eta idi-demak 17:30xetan hasiko dira, Oliden, Zubibarri eta Txokolateren idixekin.

Egun horretan Arratera jua nahi daben guztiendako auto-

bus zerbitzua eskinduko dabe. Igotzeko autobusa 10:15etan urtengo da San Juan kaleko autobus geltokitik eta Arrate-tik jaisteko, barriz, 14:00etan eta 19:30xetan egongo da.



## Azataporrua alkartekuak Altzon

Altzora exkursiñua egin eben Azataporrua alkarteko kide batzuk, astero esne eta yogurrrak eruatzen detsazen Fermin eta bere Sabekoetxeako esnetegixa bisitatzeraz. Azaldu dabenez, "Fermiñek ekoizpen prozesu guztiaren inguruko azalpenak emon zeskuezen eta bere behixak be ezagutu genduaz. Pozik urten giñan handik, behixak Fermiñekin gustora bizi diranaren sentsaziñuarekin". Eta, behin Altzora juanda, jakiña, "Handiaren" inguruko jakinmiña asetzeko, herriko gaztiak kudeatzen daben bisita gidatua egi-

tteko aprobetxau eben: "Pare bat ordutan Altzoko "Handiari" buruzko gauza mordua kontau zeskuezen. Lehelengo, kokatzen juateko, dokumentala ikusi genduan eta, ondoren, herrixan eta inguruan ibilbidia egin genduan. Fenomeno! Eguna zora-garri jua jakun!".

Hamengo basarrixan eta nekazaritza ekologikuaren alde diharduan Azataporrua alkartia ezagutu nahi dabenak aukeria daka, Juan Gisasola kalia daken lokalera juanda. Astelehen eta egueneta zabaltzen dabe, 17:00etatik 20:00etara.

## Kolona zaintzeko sukaldaritza taillarra antolatu dabe

Azken urtiotan Mendebaldeko herrialdietan koloneko minbizixa areagotu egin dala eta, jendia elikadura egokixak dakan garrantzixaz jabetzeko asmuarekin, Eibarko Minbizixaren Aurkako Alkartekuak (AECC) taillarra antolatu dabe maiatzaren 21erako. Minbizimota hau saihesteko bi faktore esanguratsu duguazela diñue alkarteko kidiak: "Lehe-

lengua, Osakidetzak martxan dakan prebenziñorako programan parte hartzia eta bigarrena, barriz, gure ohitturetan, batez be jateko kontuetan egin biharreko aldaketak". Elikadura eta dieta osasuntsuak preparatzen ikasi nahi dabene-dako taillarra Farmazian lizentziatua eta elikadura terapeutikuan aditua dan Zaloe Otaduyk emongo dau, 17:30-

xetatik aurrera Portaleko sukaldian. Saiuan digestiñua eta kolona zaintzen daben pare bat errezeta preparauko dit-tue. Izena emoteko 943 20 24 94 telefonora deittu edo bajodeba@aecc.es helbidera idatzi leike. Bide batez, AECC alkartekuak gogorarazi nahi dabe eskintzen dit-tuen arreta sozial eta psikologikua dohai-ñik dirala.



Eibarren kontsumo talde berria sortu nahi dutela-eta, aurreko asteko eguenean aurkezpena egin zuten Agifes elkarteak Urkizun duen errehabilitazio psikosozialerako zentroan. Proiektua ezagutzera emateko asmoz antolatutako ekitaldian azaldu zuten, Lur Denok, Ner Group, Agifes eta Karabeleko elkarlanean ari dira, Gipuzkoan baratz zaintza ekologikoa bultzatzeaz gainera. Buruko osasun arazoak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea sustatzea dute helburu. Lan horren berri emateaz gain, aurrerantzean Eibarren ere produktu natural eta ekologikoen otarrak eskainiko dituztela jakinarazi zuten aurkezpenean. Ekitaldia agurtzeko, osasun holistikoa eta elikadura energetikoa aholkularia den Garbiñe Etzanizek sasoiko produktu ekologikoak erabilia prestatutakoak jateko aukera izan zuen jendeak.

**E**konekazaritza sustatzeko eta buru nahasmendua duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko elkartu dira **Lur Denok, Ner Group, Agifes eta Karabeleko**. Elkarlan honen lehen fasean, Lur Denok Astigarragan dituen ortuetan lagunduko du Agifeseko talde batek, eta bertan kolektibo honetako pertsona batentzako lanpostua sortuko da. Lur Denok barne hartzen duen Ner Group enpresa-elkarteak ere bat egin du lankidetzarekin, osasun mentaleko diagnostikoa duen pertsona batentzako lanpostua sortzeko konpromisoarekin eta etorkizunean kolektibo honentzako enplegu gehiago eskaintzeko asmoa-



Otarreko produktu naturalak sukaldatu zituen Garbiñe Etzanizek.



# Produktu ekologikoz osatutako otarrak banatuko dituzte astero Agifes-en

rekin. Aurkezpenean esandakoaren arabera, *"2018an kolektiboarentzat gutxienez bi lanpostu sortzeaz gain, kontsumo ekologikoa suspertzea eta buruko osasun arazoan inguruko estigma sozialari aurre egitea"* du helburu elkarlanak.

## Otar ekologikoak astean behin

Horren harira, Eibarren otar ekologikoak eskaintzen hasiko dira eta, asmo horrekin, kontsumo taldea sortu nahi dute. Aurreko asteko ekitaldira joandako hainbatek azalpenak entzun eta jarraian eman zuten izena, baina interesa izanez gero taldearekin bat egiteko aukera beti zabalik dagoela argitu zuten. Banaketa-lanak antolatu bezain laster, egun gutxi barru, taldekide bakoitzari astean behin otar bana eskaintzen hasiko dira. Otarrak ostegunetan banatuko dituzte, Agifesek Urkizu 9an duen lokalean, 12:00etatik 17:00ak bitartean. Aukera bi aurreikusitakoak: hilean 60 euro ordainduta sasoian sasoiko baratz betetako otarra. Horri arrautza ekologikoak gehitzea nahi izanez gero, berriz, hilean 68 euro ordaindu beharko lirakeke. Izena emateko edo informazio gehiagorako [www.karabeleko.org](http://www.karabeleko.org) helbidean sartu edo, bestela, [otarrak@karabeleko.org](mailto:otarrak@karabeleko.org) helbidera idatzi edo 688632646 telefonora deitu.

Eibarren kontsumo-talde berria sortuz ekin diote hitzarmenari. Eman zituzten

datuen arabera, *"astero 250 familia inguru hornitzen dituzten Lur Denok eta Karabeleko etxaldeetako baratzetan jasotzen diharduten produktuekin osatutako saskiak aurrerantzean Eibarren ere banatuko ditugu, beste herri batzuetan egiten dugun bezala. Agifeseko hainbat erabiltzailek hartuko dute parte baratzien lanketan eta bilketan. Horrela, Hernaniko etxaldean gauzatzen den jarduera terapeutikoa eta lanerako prestakuntza Ner Group taldearen barne jaiotako baratzeproiektura hedatzeko aukera izango da. Horrekin batera, ekimen berriari esker, buru nahasmendua duten pertsona gehiagok izango dute euren lan gaitasunak, enpleagarritasuna eta garapen pertsonala lantzeko aukera"*.

## Kontsumo ekologikoaren sustapena

Akordioaren oinarrietako bat ekoizpen ekologikoaren, tokikoaren eta garaikoaren aldeko apustua da, *"agroekologia oinarritako zutabe baita Karabeleko eta Lur Denok ekimenentzat"*. Hori dela eta, elikagai ekologikoen eskaintza modu jasangarrian Gipuzkoan hedatzen joan nahi dute. Eta, horrekin batera, gizartearen sentsibilizazioa landu nahi dute, *"kalitatezko produktu ekologikoen kontsumoa baita gure osasuna, ingurumena eta inguruko garapen sozioekonomikoa bermatzeko bidea"*.



# Aire-zubia Alemania eta Eibar arteana



Urkizu inguruak ondo ezagutzen ditu Viviane Straubek. Ekhi Belar

Azken urteotako joera ez bezala, Alemania utzi eta gurera etorri da bizitzera Viviane Straub. Hizkuntzak, artea eta maitasuna nahasten dituen istorioa da berea eta, tartean, aireportuak. Kuadrilla egin du, ohitura eibartarrak barneratu ditu, baina alde batetik bestera bizikletan ibiltzea gustatuko litzaioke. *"Bizikletan ibiltzeko ohitura dago hemen, baina kirol moduan, hainbeste aldaparekin!"*. Bestetik, lagunak etxera gonbidatzen saiatzen da, oso normala Alemanian, *"baina ez dut gogo handirik ikusten proposatzen dudanean"*, esan digu barrezka. Bada, ez galdu jaki alemaniar gozoak dastatzeko aukera.

## Ohiko bidaiaria

Ravensbrugen jaio zen Viviane, Constanza lakutik ordu erdira dagoen herrian, baina aitaren lanarengatik beste toki batean hazi zen. *"Hegazkin-pilotua da aita eta aireportu baten alboan bizitzeko premia geneukan"*. Beraz, Urspringenera joan ziren bizitzera, Bavaria hegoaldean dagoen 2.000 biztanle baino gutxiagoko herri batera, Frankfurtetik hurbil. Gero, Eibarrera etorrita, asko eskertu du aireportutik oso urrun ez bizitzea, joan-etorri dezente egin behar izan baititu.

## Alemanieraren Cupido izaera

Baden-Wurtemberg dago kokatuta Vivianeren jaioterria, Subiako eskualdean. Suabieraz egiten dute han. *"Dialekto garrantzitsua da eta hizkuntza izango litzateke bere erabilera formalizatua egongo balitz"*. Bere amamekin suabieraz egiten du,

adibidez. Hizkuntzek berebiziko garrantzia izan dute Vivianeren bizitzan. Hizkuntza Eskolan alemanierako klaseetan alemaniar sorterriko hizlariaren figura betetzera etorri zen Eibarrera (irakasten den hizkuntza euren ama-hizkuntza duten hizlariak egoten dira klaseetan), bere bizitza guztiz aldatuko zuen erabakia. Eibartar batekin maitemindu eta, joan-etorriak eginda, hemen jarraitzen du sei urteren ostean. Bikain dabil gazteleraz eta, asko ikasi behar duela badio ere, ondo dabil euskaraz. A1 maila gairatu du.

## Artea bidelagun

Oso toki lasaiean hazi zen Viviane, baso, zelai eta ibai artean. Artista sena bultzatzeko testuinguru aparta. *"Margotzen egoten nintzen beti"*. Gero, Unibertsitate franko-alemaniarrean egin zituen unibertsitate ikasketak. *"Ikasketak franko-alemaniarrekin egin nituen: frantziar literatura, Alemaniarekin duen erlazioaren historia, politika eta horrelakoak nahasten dira bertan"*.

**"Es wird nichts so heiß  
gegessen, wie es  
gekocht wird"**

**LITERALKI: "Ezer ez da jaten  
sukaldatzen den bezain bero"**

**ESANAHIA: Gero benetan  
direnak baino askoz okerrago  
imajinatzen dituzu gauzak beti**

Letrak, margolaritza... keinu artistikoak ez dira falta izan bere bizitzan. *"Literaturarako ere sentsibilitate artistikoa behar da"*. Letrak albo batera utzita, margotzeari ekin dio berriz. Aurreko urteetan Eibarren antzerkigintzan eta argazkilaritzan trebatu eta gero, margolaritza eskolan ibili da aurtan. *"Orain kurtso amaierako erakusketa handia gabiltza prestatzen eta Arte Ederrak ikasteko gogoz nabil, baina lanarekin nola uztartu ikusi behar dut"*.

## Izaera alemaniarra deskubritzen


Itzultzaile lanak egiten ditu Donostiako enpresa batean, baina bere bizitza Eibarren dago. *"Nire mutil-laguna oso eibartarra da"*. Hala ere, Alemania uztea kostatu zitzaion, oso gustora zegoelako masterra egin zuen tokian. *"Oso komunitate artistiko polita zegoen, baina ez neukan lanik, tesina amaitzen negoen, nire mutil-lagunak bizitza eginda zeukan hemen eta praktikagoa zen ni Eibarrera etortzea"*. Bere herrialdea baino, pertsonen eta hainbat gauzen falta igartzen du. *"Denbora batez Alemaniak kanpo bizi naizenez, pentsatzen nituenak baino gauza alemaniar gehiago aurkitu ditut nire barrenean"*. Perspektibak ematen duen ikuspegia. Eibarrekiko duen ikuspegiak alde positiboak eta ez hain positiboak ditu. *"Estetikoki ez zait gustatzen, baina gero alemaniarren errua dela konturatzeko naiz, industriarengatik!"*, dio barrezka. Ez du poteoa gehiegi atsegin, baina kaleko bizitza maite du. *"Umeak eta helduak, jatorriz eibartarrak direnak eta kanpokoak... guztion elkarbizitza polita dela deritzot"*.

# EzDokFest, berri onak rockarentzat

Unbeko foball zelaietako belar artifizala aldatuko dute ekainean. Hainbat urtetan milaka lasterketaldi, oinkada eta baloikada jasan ditu, baina modu rockeroan esango du agur belarrak. Baloiak eta atea ez dira protagonista izango azken egunean, eszenatoki bat baizik. Unbeko kirolguneak EzDokFest jaialdia jasoko du ekainaren 1 eta 2ko asteburuan, eszena musikala aho zabalik utzi duen kartela osatu duen jaialdia.



Toundra



Belako



Nerabe



Joseba B. Lenoir



Dead Bronco

Beinat Saban, David Karbak  
eta Jose Angel Gimare.

**B**erri Txarrak, Belako, Toundra, Jardin de la Croix, Viva Belgrado... *"Ezin genituen Astelena frontoian sartu eta jaialdia Unbeko goiko zelaian egitea proposatu genion Udalari"*. Apustua handia da eta toki handia behar zuten erronkari aurre egiteko.

EzDok tabernako lagunek jaialdi handi bat egiteko ilusioa zeukaten eta lortu dute. *"Iazko EzDokFest jaialdiak demaseko arrakasta izan zuen, inflexio puntua izan zen zerbait handiagoa egitea pentsatzeko"*, azaldu digu David Karbak, Beinat Saban eta Jose Angel Gimareekin jaialdiaren antolakuntzan ari den kideak. La Salve garagardo ekoizleak zerbait handiagoa egiteko babesa eman zien, baina antolatzaileek ez zuten aurreikusten hain jaialdi handia prestatzea. *"Prestaketak egin ahala hazten joan da jaialdia"*, esan digu Gimarek. *"La Salvekoei broma moduan esan genien barixakuan Belako eta zapatuan Berri Txarrak izango zituen jaialdia antolatuko genuela, eta azkenean gure hitza bete dugu"*.

## Berri Txarrak kartel-burua

BEC-en 10.000 lagun bildu eta gero, Berri Txarrak taldeak Eibarren eskainiko du hurrengo kontzertua Euskal Herrian. Gimarek talde nafarra ekartzeko asmoa zeukala esan zionean Sabanek ezinezkotzat jo zuen, *"zeuk ikusi"*. Esan eta egin. *"Tabernaren berri eman nien: hemen eskaintzen ditugun kontzertuak, gure filosofia, eta abar"*, dio Gimarek, eta Berri Txarrak izango da kartel-burua.

Euren gustoko taldeen izenak proposatu eta tabernako bezeroen iritziak entzun zituzten kartela osatzeko. *"Asko ikasten dugu bezeroengandik, gaur egungo eszena musikala ezagutzen duen jendea etortzen delako eta talde askoren berri ematen digutelako"*, dio Sabanek. EzDok tabernaren esentzia jaialdi batera eramango dute, bai maila musikalean, bai musika ulertzeko filosofiari dagokionez.

Musika bizi eta sentitzeko filosofia hori berebizikoa izan da Berri Txarrak, Belako eta horrelako taldeak ekarri ahal izateko. *"Taldeen etortzeko gogoia erakutsi dute"*, diosku Sabanek, eta EzDokFesten arituko



Jardin de la Croix



Vulk



Viva Belgrado



Cuchillo de Fuego

/// E I B A R /// EKAINAK 1-2 JUNIO  
 UNBE KIROL KONPLEXUA /// COMPLEJO DEPORTIVO UNBE

**EZDOKFEST**

OSTIRALA 1 VIERNES

**TOUNDRA · BELAKO**  
 NERABE // JOSEBA B. LENOIR // DEAD BRONCO  
 JARDÍN DE LA CROIX // VIVA BELGRADO // VULK

LARUNBATA 2 SÁBADO

**BERRI TXARRAK**  
 COMITÉ ELÉCTRICO // DOBLECAPA // MUD CANDIES  
 THE SOULBREAKER COMPANY // MELANGE // KOKEIN  
 FUTURO TERROR // BIZNAGA // CUCHILLO DE FUEGO

f t i s

SARRERAK SALGAI WWW.EZDOKFEST.COM ETA EZDOK TABERNAN  
 ENTRADAS A LA VENTA EN WWW.EZDOKFEST.COM Y EN EL BAR EZDOK

diren taldeen artean dagoen elkartasunak lagundu duela dio Karbak. *“Gainera, oso jarrera ona eduki dute eta euren esku zegoena egin dute jaialdi honetara egokitze-ko. Gudan jarritako konfiantza berebizikoa izan da”.*

Unbeko eszenatokian, gainera, hainbat berritasun entzuteko aukera egongo da. *“Zorte handia izan dugu. Talde askok euren lan berriak aurkeztuko dituzte EzDokFesten”,* azaldu digu Karbak. *“Vulkek jaialdia baino astebete lehenago aterako du diskoa, Viva Belgradok lehen zuzeneko joko du diskoa prestatzeko geldialdiaren ostean eta The Soulbraker Company ere antzera”.*

**Tabernaren filosofiari jarraituz**

Jaialdiaren kartela prestatu eta gero, antolakuntza lanetan dabilta buru-belarri EzDok tabernakoak. *“Aipagarria da La Salvek eta Udalak eskaini diguten laguntza handia”,* diote aho batez. 3.000 lagun baino gehiago batuko dira Unben barixakuan eta zapatuan, eta autobusak egongo dira bertara joateko. *“Kotxez ezingo da igo, baina oinez bai. Oso ohitura eibartarra da hori!”*, diote antolatzaileek. Ordulegiari dagokionez, barixakuan 19:00etan hasiko da eta zapatuan 17:00etan, eta amaiera 03:30ak inguruan izango da egun bietan.

Sarrerak ezdokfest.com webgunean eta EzDok tabernan daude salgai, eta hainbat aukera eskaintzen dira. Bi egunetako abonua 49 euroko prezioa dauka, barixakuan bakarrik joan nahi izanez gero 25 euro ordaindu beharko dira eta zapatuan 30 euro. *“Salmentaren erritmoa ondo doa, lehenengo egunetan zoramena izan zen”.* Sarreraren prezioak oso altuak ez izaten ahalegindu dira antolatzaileak eta berdin izango da jaialdian salduko diren janari eta edari-ekin. *“Prezio justua eskaini nahi izan dugu, bai guretzat, bai jendearentzat”.*

Zuzenekoan eta musikaren aldeko apustuarekin EzDok taberna erreferente bihurtu da herrian eta orain beste pauso bat eman du. *“Herriko beste tabernen antzekoa ez zen toki bat sortu nahi genuen eta jaialdiarekin antzera”.* Denborak esango du jaialdia ere erreferente bihurtzen den, baina orain rockaren sasoia da.



**Berri Txarrak**



**Comité Eléctrico**



**Doblecapa**



**Mud Candies**



**The Soulbraker Company**



**Futuro Terror**



**Melange**



**Biznaga**



**Kokein**

*Idoia Lahidalga (KEZKA dantza taldeko dantzaria)*

## “Martin Zalakainen bizitza dantzaren bitartez kontatzen dugu”

Euskal Herri osoan arrakasta itzela lortu duen “Martin Zalakain” ikuskizuneko dantzarietako bat da Kezka Dantza Taldeko Idoia Lahidalga eibartarra. *Argia* konpainiaren ikuskizuna maiatzaren 19an ikusi ahal izango dugu Eibarren, Coliseo Antzokian. 90 pertsona inguru izango dira taula gainean. Dantza, musika, kantua, antzerkia... eta bertan Kezka Dantza Taldeko 19 dantzarik hartuko dute parte. Idoia Lahidalgak 19 urte besterik ez ditu eta ikuskizuneko gazteenetakoa da. Ondo ezagutzen dutenek badakite arte eszenikoetan ondo moldatzen dela: dantzaria izateaz gain, abeslaria eta musikaria ere bada.

**- 5.000 ikusle izan ditu orain arte Martin Zalakainek eta Euskal Herriko areto nagusienetan egon zarete.**

Bilbon hasi ginen Arriaga antzokian, eta ondoren Victoria Eugenia, Iruñeko Baluarteen eta Baionan egon gara. Azkena joan den hilabetean izan da, Gernikan. Eibarkoa sei garren emanaldia izango da.

**- Nolako dantzak egiten dituzue Kezkakoek eta nola antolatuta zarete Euskal Herri osoko dantzariek batera elkartzeko eta entsaioak egiteko?**

Kezkakoek egiten dugun dantzetako bat Josu Garatek sortutakoa da. Fandagoa, arinarina eta kalejira nahasten dira, eta hau guretzako berria da. Taberna batean kokatzen da, eta egiten dugun bestea zinta-dantza bat da. Ikuskizunean, Kezka ez ezik, Euskal Herri osoko beste dantza talde batzuk ere hartzen dute parte. Hasieran talde bakoitza bere aldetik ibili zen berea prestatzen, eta ondoren batera egin ditugu entsaioak hemen, Hezkuntza Esparruan, Euskal Herriko erdigunean gaudela aprobetxatuta.

**- Beraz, dantza desberdinak, jende berria, era askotako eszenatokiak... Esperientzia benetan polita dirudi 19 urteko gazte batentzat.**

Kezkak egin izan ditu gauzak Argia konpainiarekin eta Urbeltzekin, baina niretzako horrelako gauza bat egiten dudan lehen aldia izan da. Oso gustora nago. Jende desberdina ezagutzen duzu. Esperientzia handia daukan jendea dago eta hori igartzen da. Aurreko hilean Gernikako frontoi batean egin genuena kenduta, beste guztiak eszenatoki handietan izan dira. Horrelako tokietan aritzeak asko inpaktatzen du, izugarria da. Deigarriena Baluarte irudituz zitzaidan, Iruñekoa.

**- Pio Barojak idatzitako nobelan oinarritutako ikuskizuna da “Martin Zalakain” eta dantzak pisu handia hartzen du.**

Pio Barojak idatzi zuen nobela ospetsua antzeztu egiten dugu. Martin Zalakainen bi-



zita kontatzen da, umea zenetik. Alde narratiboa eta dantza oso ondo lotuta daude. Nahiz eta euskara ez jakin, bisualki oso ondo ulertzen da. Narradoreak istorioa kontatzen duen bitartean, guk gertatzen dena dantzaren bitartez kontatzen dugu eta kantuan ere jarduten dugu. Dantza istorioa bideratzeko modu bat da. Kolore aldetik jantziak oso deigarriak dira, gorriak, berdeak, urdinak... Estetikoki oso polita da. Gazteak ere animatu nahi ditut ikustera etortzeko. Ondo pasatuko dute.

**- Gaur egun gazteek beste dantza mota batzuk aukeratzen dituzte.**

Nire kuadrilan eta nire gelan euskal dantza egiten ibili den bakarra naiz. Txikitatik ibili naiz euskal dantzen inguruan eta niretzako oso inportantea da. Gainera, hor dagoen giroa asko gustatzen zait. Ama ere hor dago, Kezkan txistua jotzen, eta Jone nire ahizpa ere dantzaria da.

**- Euskal dantzetan ez ezik, beste estilo batzuetan ere ederto moldatzen zara. Eibarko Koru Gaztean, abesteaz gain, koreografiak lantzen ibiltzen zara, esaterako.**

Koruan zeozer diferentia egiteko eta bizitasuna emateko koreografiak lantzen hasi ginen. Gaur egun, gazteentzako eta jendearentzako orohar, erakargarria izateko garrantzitsua da ahotsaz gain koreografiak ere lantzea. Lehen nire ahizpak egiten zituen Koruko koreografiak. Orain bera ez dago eta kurtso honen hasieran ni hasi nintzen. Dena dela, koruan oso talde ona dakagunez denon artean saiatzen gara egiten. Urrian berriro musikala egin behar dugu, “Forjarien Kanta”. Musikal bat prestatzea sekulako lana da. Hor denbora guztian gu gaude taula gainean, ez gara eszenatokitik irtetzen eta dena ondo egon behar da.

**- Aretxabaletan Ikusentzunezkoen Komunikazioa ikasten ari zara eta dantzaria, abeslaria eta musikaria ere bazara (trikitixa eta panderua, pianoa, gitara eta ukelelea...) Harritzekoa benetan. Dena egiteko denbora daukazu? Zeozer aukeratu behar izatekotan...**

Saiatzen naiz... baina bai, dena egiteko moldatzen naiz (jajaja). Musika aukeratu neuke, hor ere dantza egiten dugulako. Azken finean, beti lotuta doazen gauzak dira.



## Martitzenean aurkeztu zuten Tantanez Tantan euskeraren aldeko jaia

Maiatzaren 19an ailegatuko zaigu euskeraren olatua Eibarrera, "Tantanez Tantan, Eibarren euskeraz blai!" goiburuari jarraituko dion ekitaldiarekin. Aurreko edizioetan baino ordubete lehenago, eguerdiko 12:00etan abiatuko da olatua Urkizutik, Urkusuko iturrian gantxila urarekin bete eta jarraian. Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere gantxila eskurik esku Untzagaraino eramango dute eibartarrek, giza katean. Eibarko euskalgintzak hilabeteak daramatza urte bitik behin ospatzen den ekitaldia antolatzen eta aurten berritasunik izango dela aurreratu zuten martitzenean Eibarko Bizikleta Plazan egin zen aurkezpenean. Izan ere, oraingoan euskeraren olatuak bat egingo du udazkenean Eibarren antolatuko den Euskaraldiarekin. 13:00etan gantxila Untzagara ailegatu eta gero aurkeztuko da Euskaraldia, jai giroan eta sorpresa ugarirekin.

**E**ibar euskaraz blai lagatzeko moduko olatua osatu nahi da maiatzaren 19an Eibarren. Hori argi laga zuten Tantanez Tantan edo "gantxillaren jaia" aurkezteko martitzenean Eibarko Bizikleta Plazan bildutakoek. Eibarko Euskalgintzaren mahaia osatzen duten taldeek antolatutako ekitaldiak seigarren edizioa beteko du eta, aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere "Tantanez tantan, Eibarren euskaraz

blai!" goiburuari jarraituko dio. Aurten aurreko edizioetan baino ordubete lehenago hasiko da ibilbidea, eguerdiko 12:00etan. Antolatzaileek diotenez, "jendeari 11:30erako dagokion tartean egotea eta pazientzia izatea eskatu nahi diogu. Eta, horrez gain, arropa urdina eta koadrodun zapia jantzita etortzera animatuko dugu mundu guztia".

Antolaketa lanak errazteko, Eibarko talde eta kolektiboei parte hartzeko

gonbidapena egin zaie eta horietako bakoitza tarte jakin batean kokatuko da. Hala ere, ekitaldia jende guztiarentzat zabalik egingo dela argi laga nahi dute eta, beraz, herritar guztiak izango dute parte hartzeko aukera. Izan ere, ibilbide guztia giza katean osatzeko 500-600 bat lagun beharko direla aurreikusi dute antolatzaileek. Horregatik eibartar guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte, "maiatzaren 19an Urkizutik Untzagara bitarteko ibilbidea osatzen laguntzeko".

### Amaieran Euskaraldia aurkeztuko dute

Aurten Eibarren Akebai plataformaren babesa izango du ekimenak eta, horrekin batera, bestelako berritasunik ere izango da: Eibarren ez ezik, Euskal Herri osoan udazkenean egingo den Euskaraldiarekin lotuta ospatuko dugu Tantanez Tantan jaia oraingoan. Martitzeneko aurkezpenean parte hartu zuten "Aho-bizi" eta "Bihotz-goxo" panpinak gantxila hartzen azkenak izango dira eta, gantxilak Untzagarainoko ibilbidea bete eta jarraian, Euskaraldiaren aurkezpena egingo dute.

Maiatzaren 19an herri guztiak jaiarekin bat egitea nahi dute antolatzaileek eta, Eibarko jendea eta kaleak girotzeko, gantxilaren irudiarekin pegatinak eta kartelak atera dituzte. Horrekin batera, Mogel Iasisko hankapaloak, Musika Eskolako soinu-joleak eta Eibarko Batukada Feministak herriko kaleak alaitzen ibiliko dira, besteak beste.



Aurten bideo-lehiaketa egin da eta argazkiko taldeak irabazi du.

Gehiketekin eta kenketekin dantzan egin ahal da? Nolako mugimenduak irudikatzen dituzu planetei buruz diharduzunean? Badago ingeleseko klasean ikasitakoa gorputzarekin adierazteko modurik? Aste honetan Arrateko Andra Mari eta San Andres ikastetxeetan ikusitakoa kontuan hartzen badugu, erantzuna baiezkoa izango da eta horren erakusle izan zen atzo Coliseoak jaso zuen ikuskizuna. Adierazpenerako bidea da dantza, baina baita hezkuntza aberasteko ere.

## Dantza, bizitzarako ikasgaia

Astehenean lehen saioa egin eta gero, Arrateko Andra Mari ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek badakite martitzenean ordu ezberdina biziko dutela Dantzaz konpainiako dantzariekin. Aurkezpenen ordua izan zuten lehen egunean, baita euren mugimendu propioa zein izango zen erabakitze ere, eta bigarren egunean beste jarduera batzuk egiteko momentua iritsi da. *"Normalean egiten dituzten gauzetatik kanpo dago eta oso aberatsa da ikasleentzat"*, irakaslearen ustetan. Pedagogia eta dantza batzen ditu Erresidantza proiektuak, azken urteotan Dantzaz konpainiak Euskal He-

rriko hainbat ikastetxetan garatu duen egitasmoa.

Musika-gelan daude seigarren mailakoak, mahairik gabe eta aulkiak albo batean lagata. Plastiko koloretsua dago lurreen umeek laban egin ez dezaten eta eszenatoki itxura dauka. Dantzaz konpainiako dantzariak zuzentzen dute saioa eta eurek ere dantzan egiten dute, baina ikasleak dira sortzaileak. *"Eurek proposatuko dute ikuskizunean nolako dantza egin eta nolako musika jarri nahi duten"*, adierazi digu irakasleak. *"Ume batzuek berezkoa dute dantzan egitea, baina beste batzuek ez. Bakoitzak bere moduan egiten du eta, horregatik, berea da saioetan egiten dutena"*.

Hainbat ariketa egiten dituzte saioan zehar eta gorputzen mugimenduekin batera berotzen doazen neurrian lotsa kentzen doaz ikasleak. Ordubeteko saioak dira, baina oso biziak. *"Ikasleek nekatuta amaitzen dute"*, aitortzen du irakasleak. Hirunaka, talde osoak edo zortzinaka, ia gelditzeko unerik ere ez daukate gazteek. Hala ere, dantzan dabiltzan bitartean ez zaie nekerik igartzen.

### Ikasgaiak dantzatzen

Arrateko Andra Mari ikastetxeko 6. mailakoek materiaren alaketak landu dituzte berriki eta ikasitakoa dantzara eramaten saiatzen ari dira. Solidotik likidora, likidotik gasera eta alderantziz. Nola? Bakoitzak nahi duen moduan. Dantzaz konpainiako dantzariak momentu bakoitzean sentitu behar dutena adierazten diete. *"Solidoa!", "likidoa!",* eta ikasle bakoitzak bere moduan interpretatzen ditu hitz horiek esan nahi dutena. Likidoa dantzatu behar dutenean gehienak lurrera jausi eta arin mugitzen dira, gasarekin are arinago, eta solidoarekin sendo eta egonkor geratzen dira tente.

Klasean eman ditugun edukiekin harremana daukaten gaiak lantzen dituzte saio hauetan eta sentitzen dutena jarraituz dantzan egiten badute ere, hainbat gauza lantzen dituzte era berean. *"Saio hauetan hainbat arau jarraitu behar dira, dantzariak*



*Dantza eta ikasgaiak uztartu dituzte herriko bi ikastetxetan. Ekhi Belar*

esaten dutena bete behar dute eta klasekideek egindakoa onartu eta errespetatu", dio irakasleak.

Lotsak albo batera lagatzea kostatzen zaie ikasle batzuei, baina saioak aurrera egin ahala gorputza mugituz animatzen dira. "Horrelako saioek lotsa galtzen laguntzen die, ez bakarrik euren lagunen aurrean, baita jendaurrean aritzeko ere", eta Coliseoan eskainitako saioa da horren eredu garbia. Gainera, taldean egindako lana izanik, dantzaz betetako aste honek ikasle taldeak gehiago batzen ditu, euren arteko harremanak estutuz.



Kezkakoekin dantza-trukea egin dute Dantzaz konpainiak.

### Aste bizia eta dibertigarria

Iazko edizioan Amaña eta J.A. Mogel ikastolakoekin egindako jarduera arrakastatsuen ostean, aurtengo saioa iazkoa bezain ona izateko prestaketak egin dituzte astean zehar. Sei dantza egin ziren atzo Coliseoan. Arrateko Andra Mari eta San Andres ikastetxeetako dantza bina, eta Dantzaz konpainiaren beste bi dantza. Growing Young ikuskizuna garatu du Dantzaz konpainian eta herrialde ezberdinetako sortzaileek egindako dantzak batzen ditu. Horren adibide dira Daniele Ninarelloren 'Lead' eta Itzik Galiliren 'Prelude to wasted tear', atzo Coliseoan ikusi ahal izan ziren dantzak.

Iaz egin bezala, aurten ere esperientzia honen inguruko bideo grabazioa egiteko

asmoa izan du Dantzaz konpainiak. "Oso aste bizi, dibertigarri eta ezberdina izaten da umeentzat", esan digu Fernando Sancen de Ugarte Dantzaz konpainiako zuzendariak, eta Eibarren bizitakoa hedatu nahi izan dute. Ikasleengan hedatu dena, bestetik, dantzaren magia izan da.

### Kezkakoekin elkar-trukea

Arrateko Andra Mari eta San Andres ikastetxean aritzeaz gain, Dantzaz konpainiak Kezka Dantza Taldearekin elkar-trukea egiteko aprobetxatu du astea. "Beraiek, Itzik Galili koreografoaren lan baten zatitxo bat irakatsi digute (ejem, saiatu dira...) guri eta guk fandangoa dantzatu dugu beraiekin", adierazi digute Kezkakoek.

# Ibilaldia

## SANTURTZIN



**tamP!**  
ibilaldia 18 Santurtzi  
maiatzaz 27

maiatzaren **27**an

**IRTEERA**

09:00etan  
Ego-Gainetik

**AUTOBUS ZERBITZUA**

9



**BUELTA**

19:00etan

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkartea ...eta kitto! Euskara Elkartea

**Radio Eibar**  
CADENA  
**SER**  
104,0 FM

**Izadi**  
LORADENDA  
- Lora eta landare natural eta lehorrak  
- Ezkontzetarako lorak  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelerara,  
gazteleratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.**

**ZERBITZUA**

elkartea@etakitto.eus

# + osasun gida

## Dentistak

**arat**  
Hortz Klinika

943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com

Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.*

**UniverSalud**  
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17

Esku onetan egotearen ziurtasuna.  
20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.

**bista eder**  
clinica dental hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

**EIBAR** ♦ HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1.C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

**hortz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**IRAZABAL**  
clínica dental

**Iribarreetan adituak**  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicalrazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896**

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
*Konpromisoa*

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**

Ainara Iriando Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA**  
ESTETIKOIA

**KIRURGIA**  
ESTETIKOIA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

Indibaterapia  
Kirol lesioak  
Drenaje linfatikoa

**ARRAQUETA, 20**  
Tf. 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA**  
ZENTRUA

## Ginekologia

**Mª Jose Ruiz de Porres**  
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

**T. Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943 20 28 57**  
**94 444 95 34**



## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



**Isasi, 17 - 1. esk.**  
**943 202691**  
**ahotslan@gmail.com**

**Diagnostikoa eta tratamendua**

<b>Degluzio atipikoa</b>	<b>Arreta arazoak</b>
Disfonia	Berba arazoak
Ikaste-arazoak	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. esk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

**Berba**  
logopedia

**AIDA CORTA ANTÓN**

**SAN AGUSTIN, 2-4 (B. 1004)**  
Mobila: 622-629-544  
logopeda@berba.es

**Ebaluazioa eta tratamendua:**

- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

## Okulistikak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
[www.oftalberdi.com](http://www.oftalberdi.com)

San Juan 11 - solairuartea  
943 20 19 82

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinikoa

• **Miopia ebakuntzak**  
(femtosekundoko laserrarekin)

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
[www.clinicarecalde.com](http://www.clinicarecalde.com)



## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOA  
124 kolegiatu zenbakia



T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93 / 696 555 208**

**BIDEBARRIETA, 48**  
**EIBAR**  
943 203050


**ERDIKO KALE 54**  
**ARRASATE**  
943 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**

**Maidier Lopez Etxebarria**



**Arragueta 2 Bis-B, Behea B**  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

**Iñaki Rivero Zabaleta**

**Calbeton, 4 - 2.**  
(Untzagako dorrea)

**Tel. 943 20 86 41**

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
[www.centroamets.com](http://www.centroamets.com)

**Coro Ortíz de Urbina** - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
[www.arratepsicoterapia.com](http://www.arratepsicoterapia.com)

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ezk. .... EIBAR  
Zuberoa, 4 ..... ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

**Oscar Mondragon Lili**  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tel. 943206823 eta 686859023



Tf. 686 85 73 22  
[moreno\\_iciar@yahoo.es](mailto:moreno_iciar@yahoo.es)

**Itziar Moreno**  
PSIKOLOGOA  
KOLEG. ZKIA. 1947

**GIZENTASUNA ANTSIETATEA AUTOESTIMA ARAZOAK**

☎ 943 12 02 00  
URKIZU, 13 - 1.

ORBEAKO DORREETAN

centro médico eibar

## Psikoterapia

R.P.S.: 32/17

**FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

**FERNANDO URIZAR BARANDIARAN**

**Medikuntza Psikiatrikoa**

**Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)**  
615 71 54 04

**Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)**  
94 416 49 06  
[furizar1@yahoo.com](mailto:furizar1@yahoo.com)



## Hiru urte esanguratsu herrixan, 1931etik 1934ra

**E**ibarrek titulu haundi bat dauka: herri txit eredugarria izatia. Eta zergaitik? Danok dakigunez, hamen gure herrixan Errepublikia lehelengo aldiz aldarrikatu zalako. Beste leku guztietan baiño egun bat lehenago. Itxura Donostiatik etorri zan albistia: Monarkixia jausi zala eta errepublikan gengozeza. Oindio ez zan holan, baiña eibartarrak, errepublikanuk eta sozialistak udaltxiarekin jabetu eta Errepublikia aldarrikatu eben.

Goizian goiz zabaldu zan barrixa: Errepublikia dogu! Eta jende asko Untzagako plazan batu eta segiduan eratu zan kalerik kaleko ibillaldia, "manifestaziño inponentia" eibartarron hizkeran, Errepublikia goratzen. Era berian, Tiroteo Zubiare aurreko alkatea eta ziñegotzixak euren agintaritzan kontzejal barrixen eskuetan laga zebe. Azken honek, barriz, Alejandro Telleria -gero "alkate txixixa" gatzizenarekin ezagun egin zana- izendatu zebe alkate.

Esan biharra dogu otsailleko hauteskundietan ezkerrekuak urten izan zirala nagusi. Hona hamen hauteskunde haretako emaitzak: sozialistak 10 ziran (Alejandro Telleria, Juan de los Toyos, Felix Arregi, Marzelino Baskaran, Florentino Bueno, Kandido Arrizabalaga, Jose Lizaraburu, Martin Erkiaga, Miguel Gorrotxategi eta Jazinto Galarraga); errepublikanuk zortzi ziñegotzi zekezzen (Domingo Kortazar, Gregorio Bustindui, Eulogio Garate, Mateo Kareaga, Jose Mari Ojangueren, Florentino Carral, Esteban Rementeria eta Jazinto Alberdi); Eusko Alderdi Jeltzalekuak bakarria atera zebe (Joakin Elorza); eta karlistak ez zebe ziñegotzi bakarria be lortu.

Errepublikia etorri zan, bai, baiña bizitza girua eta biharraren inguruko arazuk ez ziran guztiz -ezta gitxiago be- konpondu. Bihar kontuetan urte txarrak izan genduazen. Arma fabrikak estu eta larri iraun zebe. Udalak, bihar barik zegozeri lagundu nahixan, obra batzuk jarri zittuan martxan: holan, esate baterako, egin ziran Untzagako kiosko barrixa, Institutuaren zati bat Untzagan bertan eta Pageiko etxiak. Errepublikari esker lortu genduan eibartarrok institutua izatia, eta haren egoitza udaletxian bertan antolatu zan. Eta, jarraixan, gauzak oin-diokan gehixago okertzeko, gerra zibilla sortu zan uztaillaren 18xan. Aurretik, baiña, Urriko Iraultza be bizi izan zan gurian.

### Urriko Iraultza Eibarren

1934ko urriaren 4a zan. Toribio Etxebarriak Donostian bere alderdiko agintarixekin iraultza noiz hasiko zan erabagi eta gero, Untzagako Melitonaneko tabernan Juan de los Toyos, Jazinto Galarraga, Felix Arregi eta Enrique de Francisco sozialista gaztien buruarekin alkartu zan. Billera hartan erabagi zebe hurrengo egunian, hillaren 5ian, goizeko lau eta erdietan hasiko zala matxinadia.

Arratsaldeko seiretan egin nahi ziran ekintzen arduria izango zebe 21 sozialistak be Casa del Pueblon alkartu ziran. Jose Iñazio Etxeberria botikarixua hasi zan, hango biblioteca onduan, Molotov koktelak edo botilla leherkarixak gertatzen. Era berian, Jazinto Galarragak Alfan gordeta zittuan armak banatziari ekin zetsan. Alfan bertan be ordura



1931-V-3. Hiri Txit Eredugarria titulua entregatu zetsan Eibarri Errepublikako gobernu probisionalak. Alejandro Telleria alkatea eta korporaziñoکو beste kidiekin, Indalecio Prieto orduko Hazienda ministrua, Queipo de Llano kapitaiña eta Miguel de Unamuno idazlia, beste batzuren artian. **Ojangueren Fondoa. Eibarko Udal Artxiboa**

arte kanposantuan gordeta zekazen bonbak kargatzen hasi ziran.

Gauzak holan eratuta, goizeko lau eta erdietan Errebal kalia guardia zibillen kontrako lehelengo tiruak entzun ziran. Honek be antolatzen hasi ziran eta, badaezpada, kuartelaren parian zeguan Star fabrikari sartu ziran. Berihala, baiña, goiko aldetik kuartela erasotzen gogortu ziran ezkertiarak. Era berian, ezkertiar beste talde bat Tieme alemanak Matsarixan zeukan almazenera heldu zan, bertan zegozen millioi bat kartutxo hartzeko asmuarekin. Tiemek bittartian telefonoz guardia zibillekin berba egitteko aukeria izan zebe. Orduan, hó-

nek Estaziñoara ondora heldu ziran eta han tiroketia sortu zan. Une horretan hil zittuen tiroteuan Sebastian Landa, eta Aitor Orueta oso larri zaurittuta geratu zan. Gitxi gorabehera ordu berian, iraultzaillak Probaderuan sartu eta hango armez jabetu ziran. Han, deskuido, hil zan 19 urteko Pedro Gerrikabeitia gaztia. Goizeko zazpirak inguruan Eibarko karlisten buru zan Karlos Larrañaga mezataria zoian, Ardantzako zubixa pasatu ondoren tiroz hil zebe. Kuartel inguruan zeukan hegazi-txabolara zoian Matias Biteri be hilda gertatu zan, guardia zibillak egindako tiroz.

Goizeko zortziretan heldu ziran Bilbotik Isasi ingurura "asaltoko guardia". Ezkertiarak Armerixa Eskolan zegozen eta tiroka hasi ziran etorri barrixen kontra. Guardietako bat hilda eta lau zaurittuta gertatu ziran. Goiz guztian, Armerixa Eskola inguruan amaierarik gabeko tiroteua egon zan. Armerixako teillatuan zeguan Florentino Vazquez be hantxe bertan tiro batek jo eta lurrera jausi zan, hilda.

Eguerdin inguruan, "asaltokuk" eta guardia zibillak, tren-makiña batiari sartu nahi izan zebe Eibarren, baiña udaletxetik botatuko tiruak zirala-eta, atzerutz egin bihar izan zebe. Guardia Zibillak be, Untzagan sartzeko asmotan Calbeton kalera heldu arren, atzera bueltatu ziran hango etxietatik tiroka gogor egin zetsen eraso-eta.

Bestalde, Gasteiztik soldaduak zetozen matxinadia amatatzera. Gauzak holan, iraultzaillak errenditzeko asmua hartu zebe. Orduan, Toribio Etxebarria sozialista eta Agapito Etxeberria komunista, azken hau bandera zurixarekin, kuartelera abiatu ziran. Han, Garrigos nagusixaren aurrian, errenditu egin ziran. Toribio giltzapetu egin zebe, eta berarekin batera beste asko. Ahal izan zebe ihes egin zebe: bestiak beste, Jazinto Galarraga, Juan de los Toyos, Agapito Etxeberria, Jose Arangueren eta Julio Betolazak.

Matxinada hori zala-eta, 172 eibartarrak Iruñeko kartzela ezagutu zebe. Horretako hiruri -Juan Ibarra, Patxi Intxaurrea eta Julian Prietori- hiltzeraiñoکو zigorra ipiñi zetsen. Hogeitasei urtetan kartzelan egotera kondenatu zittuen Toribio Etxebarria, Floren Betolaza, Alejandro Garcia, Kandiko Eguren, Lucas Alberdi, Zeferino Lanasa, Juan Sol, Lucas Azkunaga, Gabino Etxeberria, Lorenzo Larena, Zezilio Zamakola, Benigno Baskaran, Kandiko Tolosa, Julian Azula, Gregorio Mendoza, Jose Perez, Julian Zamakola, Angel Marcano eta Benito regil. Otsailleko hauteskundietan, ezkerrekuak irabazle urten zebe, danak libre geratu ziran.

## Bikeibarrek 10 urte betetzen ditu

Badira hamar urte Bikeibar izeneko taldea sortu zutela eta aurten, ohiko irteerak egiteaz gain, badute asmoa data hori modu berezian ospatzeko. Horrez gain, apiriletik urrira arte, ohi bezala, hileroko irteera bat antolatzen dute hainbat lurralde eta inguru ezagutzeko euren gogoko kirola eginez. Dagoeneko apirilean Nafarroako Lokiz mendilerroan izan ziren, eta bihar egingo dute maiatzeko irteera, ikasturteko bigarrena. Oraingoan Usurbilera hurbilduko dira, bertako parajeak zeharkatu eta, egunari amaiera bikaina emateko, sagardotegi bateko mahai inguruan biltzeko.

Ikasturte honetako beste irteerak honakoak izango dira: ekainaren 9an Gasteizera, uztailaren 14an Kantabriako Los Machucos-era, irailaren 22an Errioxako La Demanda mendilerroa eta, amaitzeko, urriaren 20an Raid Eibar ezaguna. Bestalde, ekainaren 16an zikloturismoa egiteko aukera izango dute Nafarroan egiten den Andiako Itzulian. Taldetik eurekin irteetzeko gonbitea egi-



Urrira arte hileroko irteera bat antolatzen dute Bikeibarrek.

ten die interesatu guztiei. Informazio gehiago [bikeibar.com](http://bikeibar.com) webgunean aurkitu dezakezue.



Somos Eibar

## Eskubaloien asteburua ospatuko dute gaurtik domekara Untzagan

Azken urteotako ohiturari jarraituta, Eibar Eskubaloiak asteburu guztia hartuko duen hainbat aktibitate egingo ditu kirol modalitate hori kalera ateratzeko asmoz eta, horrez gain, txosna zabalduko dute gaur bertan. Talde nagusiak, 1. Maila Nazionalean jokatzen duen Somosek, 23-26 galdu zuen ligako azken partidua Ipuruan sailkapenean bere atzetik zegoen Barakaldorekin, atsedendian aldageletara berdinduta erretiratu eta gero. Haritzak, bestalde, indartsu dagoela erakutsi zuen beste behin eta inolako erraztasunik eskaini ez zion Egari irabazi zion 27-18. Txirbel atezainak beste erakustaldi bat eman zuen eta Gorka Landak goleatzaile sena agerrarazi zuen oraingoan ere. Berri kaskarrena Aitor Cruzek eskaini zuen, belaunean min hartu baitzuen berriro.

## Pampo Memorialaren 8. edizioa egin zuten Aixolan

Aurreko zapatuan Felix Ormaetxea "Pampo" gogortu zuten berriro Aixola urtegiaren egindako ekitaldian. 35 bat lagun elkartu ziren zortzigarren edizio horretan, goizean goiz hasi eta arratsaldera arte iraun zuen jardunaldian. 08:00etan maratonia hasi zen eta bi ordu geroago maratoni-erdia, parte-hartzaile bakoitzak nahi beste itzuli egiteko aukerarekin. 12:00etan, antxixiketaldia amaituta, lore-eskaintza egin zen eta, hiru ordu geroago, bazkaria izan zuten Ermuko Zurich tabernan.



## Eibar Deltecoko 29 ordezkari Getariako IV. Triatloi Sprintean

Ordezkaritza zabala aurkeztu zuen Eibarko triatloi taldeak apirilaren 29an jokatutako Getariako triatloian. Pello Osorok bigarren postuan amaitu zuen proba (1h04'45") eta, Enrique Guruzeta (1h15'16", 77. postuan) eta Adur Juaristirekin (1h16'18", 88. postuan) hirukotea osatuz, 9. postuan amaitu zuten taldekako sailkapenean. Pello Berrizbeitia eta Jon Illarrendi izan zituzten atzetik. Aurreko asteburuan, bestalde, Senperek hartu zuen triatloien protagonismoa: zapatuan jokatutako taldekako triatloi sprintean Osoro anaiek zazpigarren amaitu zuten; eta domekan, Pello Osorok amaitu ezin izan zuen triatloi olimpikoan, Txomin Osorok 2h10'25"ko denbora egin zuen eta Xabier Arrietak 2h30'08".

## Katu-Kale igoera faserako txartelaren bila Ipuruan

Probintziako 2. Mailara igotzeko multzoan laugarren geratu ondoren, igoera-fasea jokatzeke txartela jokoan izango den partiduari egin beharko dio aurre bihar Katu-Kale saskibaloitaldeak. Tolosako Take Coach izango du aurkari Ipuruan 18:15ean hasiko den partiduan. Taldeak ondo entrenatu du, baina hala ere ordua heldu arte zalantzan izango du Sergio (zaintiratutik sendatzen) eta Andersonen (lan-arazoekin) parte-hartzea.

## Deporreko atletak emaitza ezin hobeak lortu zituzten jubenil eta juniorretako Euskadiko txapelketan

Herriko atletak ezin gorago amaitu dute Durangon jokatutako bi maila horietako Euskadiko txapelketetan. Horrela, Eibarko hainbat txapel-dun izan dira aipatutako lehiaketan: Andoni Calvinok 100 eta 200 metroko probak irabazi zituen, Markel Gutierrezek junior mailako 5.000 metroko martxa proba, Eneko Osorok distantzia bereko jubenil mailakoa, Jone de Castrok eta Andoni Egurrolak xabalina modalitatekoa eta Julen Teranek al-

tuerakoa. Azken hori bigarren izan zen 400 metro hesietan eta postu bera eskuratu zuen Elena Susaetak pertigarekin. Eibartarron oso gustokoa den xabalina jaurtiketan Ekain Egurrola eta Mikel Martinez hirugarren eta laugarren izan ziren jubenil mailan.

Eskola mailako atletak, bestalde, Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten Irunen eta hor ere izan ziren podiumaren gorenera iritsi ziren eibartarrak: Miren Urizar onena izan zen 80 me-



*Klub Deportiboak egiten duen harrobi lanak bere emaitzak ematen ditu.*

tro hesietan eta altueran, Imanol Egidazu lehena 80 metro-tan eta bigarren altueran, eta Aiora Unzeta lehenegoa pilota

jaurtiketan. Aurrekoek gain, disko jaurtiketan Kepa Marquezek bigarren amaitu zuen eta Miren Urizarrek hirugarren.



*Lasturreko Luis Guenaga*


## Bittor Ugarteburuk plenoa egin zuen Sorraluzen

Hala ere, Lasturreko Luis Guenagak irabazi zuen tiraldia, Asola Berrikoarekin eta Floreagako Gorka Etxaniz gaur egungo liderarekin berdinduta. Bederatzi txirlo bota zituen hirukoteari beste hirukote batek jarraitu zion, txirlo bat gutxiago etzanda: Elgetako Antonio Ibarluzea eta Sebastian Aranzabal izan zituen lagun Asola Berriko Bittor Rodriguezek, zortzi txirloko emaitzarekin.

Elgoibarko San Miguel bolatokian bihar jokatuko den 49. Gipuzkoako txapelketaren zazpigarren jardunaldiaren bezperan, Gorka Etxaniz azkoitiarra dugu lider sailkapen orokorrean, 30 txirloekin, Unai (28 txirlo) eta Xabier Loiola (27) elgoibartarren aurretik.

## Avia Rugbyko emakumeek maila eman zuten Euskal Ligako lehen seven-ean ere

Eibartarrak argi erakutsi zuten azken denboraldian eman duten aurrerapausoa UniBilbaoren zelaian jokatutako lehen seven modalitateko partiduetan. Uni Bilbao B izan zuten lehen aurkari eta, bizkaitarren erresistentzia 0-29 gainditu ondoren, joko-sistema aldatu eta Durangori 0-26 nagusitu zitzaizkion. Multzoko lehen postuan geratu ondoren, lehen hiru postuak erabakitzeke lehiari sartu ziren eta hor Ohorezko A Mailan jokatzen duen Getxo izan zuten aurrez-aurre. Eibartarrak aurretik jartzea lortu zuten entsegu bati esker, baina bigarren zatian emaitza irauli eta Getxo nagusitu zen 24-19. Bigarren postua eskuratzeko helburua, eta baita lortu ere, Gernika baino gehiago zirela erakutsi baitzuten Avia Eibarkoek (22-5). Jakina, hirugarren zatia arrakastasua izan zen beste behin.



*Edu del Fresno*

## Bar Txokok bereganatu zuen KirolBet Sariaren zortzigarren edizioa

Domeka goizean Ermuan jokatutako torneoaren finalean, Eibarko txapeldunak 1-0 irabazi zion Ermukoari, Alvaroren gol batekin. Indar parekatuak erakutsi zituen partiduak, baina Bar Txokok merezitako garai-pena eskuratu zuen Murruga V. Radaren aurrean. Bestalde, elurrarengatik atzeratutako jardunaldia ere jokatu zen asteburuan eta, horrekin, liga amaitu da. Baina ez lehiaketa eta hor dugu Kopa torneoa ate joka, bihar eta etzi jokatuko baitira final-zortzizirenak: bihar, Slow XOK - Arkupe, Azkena Adahi - Esmorga, Alkideba - Garajes Garcia eta Sporting Larragest - L.P. Machado Tankemans jokatuko dira; eta etzi, Reformas Hiru - Bar Areto, Feredu Solutions - Durango eta Bar Txoko - Ipur Sagardotegia.

## Urbateko emakumezkoak 5. Espainiako waterpolo txapelketan



Alcorconen jokaturako emakumezkoen bigarren mailako Espainiako waterpolo txapelketan Urbateko ordezkarriak bosgarren postuan geratu ziren, jokaturako bost partidutik hiru irabazi eta bi galduta. Hasieran aurkari zailenak egokitu zitzaizkien eibartarrei eta galtzen hasi zuten txapelketa: gero txapeladun izango zen Cuatro Caminosek 13-4 irabazi zion Urbati eta, ondoren, eibartarrak berriro makurtu behar izan ziren Manresako Minorisaren aurrean (12-6). Hor-tik aurrera, hiru garaipenekin amaitu zuten eibartarrek lehiaketa: 12-8 irabaziz Kanarietako Realesi, 10-7 Cartagori eta 10-6 Pontevedrari. Bestalde, Espainiako selekzioak Miren Urizar eibartarra deitu du Bartzelonan egingo duten teknifikazio jardunaldirako.



## Eskozia la Bravakoek egun guztirako egitaraua prestatu dute bihar lehen taldearen denboraldia agurtzeko

Gaueko 21:00etan Eibar FT-k burutu duen denboraldia ospatzeko Untzagan prestatu duten kontzertutik aparte, aurretik ere giroa izango da Eibarren Eskozia la Bravak antolatutako ekitaldiekin. Egitaraua goizeko 10:00etan hasiko da, Ipuruako anexoan jokatu den infantil mailako I. Iker Amutxastegi Sariarekin. 11:00etatik 16:00etara gaztelu puzgarriak egongo dira anbulatorio eta Ego Gaineko parkeetan, eta 12:00etatik 18:00etara photocall-a Untzagan. 12:00etan trikipoteoa hasiko da Guridi tabernan eta 15:00etan bazkaria egingo dute udaletxeko arkupetan, gonbidatutako beste peñekin eta Eibar FT-ko kapitainak izandakoekin. Bazkalostean elektrotxararak girotuko ditu kaleak partiduko ordua iritsi arte eta, amaitzeko, Eibar eta Las Palmasen artekoa hasi aurretik, Sergi Enrich-i Eskozia la Bravaren XIV. Saria emango zaio.

## Badira 50 urte Arrate Auto Igoeraren lehenengo edizioa jokatu zela

1968ko maiatzean, Parisko erreboltarekin batera, hasi zuen bere ibilbidea Arrateko Auto Igoerak. Eibarko RAC-eko ordezkaritzak, Klub Deportiboaren laguntzarekin, hartu zuen lehen edizio hartako ardura. Urte-

etan eutsiko zioten eran jokatu zen: zapatuan entrenamenduak eta domeka goizean lasterketa. 41 auto-gidarik hartu zuten parte eta Jose Ignacio Sunsundegi, Morris Cooper batekin, nagusitu zen 4'55"ko denborarekin, Saez de Buruaga eta Luis Mari del Olmoren aurretik. Formulak eta barketak geroko kontuak izango ziren, baina holakorik gabe ere zaletu asko izan zituen urte hartako probak. Iaz Escuderia Eibarrek Portalean egindako "herriko historiaren erakusketan" omenaldia egin zieten antolatzaileei eta baita Sunsundegi berari ere.



## Kalamua Korrikalari Taldeak Udaberritraila egingo du 20an

Klub Deportiboko Mendiko Taldearen egitarauaren barruan, Trail atalak Udaberritraila antolatu du hilaren 20-rako. 17 kilometroko ibilbidean 927 metrko goranzko desnibela gaudituko dute, "nahiko erraza eta hiru orduan egitekoea". Ibilbide horretan Urkoko kobak bisitatuko dituzte, itzulerakoan Urkoko tontorra eginez, "eta Urko inguruko bide berri batzuk ezagutzeko aukera paregabea izango da". Goizeko 08:30ean irtengo dute Klub Deportiboaren aurretik eta amaitzeko ere toki berera itzuliko dira. Jarduera doakoa bada ere, antolatzaileek izena emateko eskatu dute, euren lana errazteko: interesatuek kalamuakokorrikalaritaldea@gmail.com helbidera jo dezakete. Aldi berean, mendian federatua egotea gomendatzen dute, "edo norberak bere asegurua izatea". Komenigarritzat jotzen dute ere mendian korrika egiteko oinetakoak, telefono mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait eramatea.

## Udako Campusa bi txandatan

Eibar FT-k antolatzen duen Udako Campusaren bosgarren edizioan izena emateko epea zabaldu dute. IK4-Tekniker eta Aviarekin elkarlanean egingo den campusean 9 eta 14 urteen arteko neska-mutilek hartu dezakete parte eta bi txandatan egingo da: ekainaren 25etik 30era lehenengo eta uztailaren 2tik 7ra arte bigarrena.



JOSE LUIS IRIGOIEN: Hau be desagertuko da?

Khami eta Kalakan 2017. urtean zehar batzen hasi ziren energia eta magiaz beteriko ikuskizun berri baten abestiak sortzen hasteko. Ikuskizun berrian *Haika Mutil*, *Binbilo-Bonbolo*, *Ene izar maitia*, *Goizean goiz jeikirik* edo *Atso Zaharraren Atorra Zaharra* bezalako abesti tradizionalak entzungai izango dira, hala nola, *Larre Berrian* bezalako abesti ia ahaztuak edo ikuskizunerako prestatu diren beste abesti berri batzuk. Konexio eta fusio handi horri, ibilaldi luzea duen Angel Unzu musikaria elkartu zaio bere sokazko instrumentu, perkusio eta inprobisazioekin batera.



## Kantu eta perkusioaren erreinuan

**B**ihar da hitzordua Coliseoan, 20:30ean hasita. Hor estreinatuko da talde bien arteko elkarlana, gero Azkoitian "Udaberriko Musikaldia" zikloaren barnean hurrengo kontzertua eskaini aurretik. Asmo handiko proiektu horretan tradizioa eta modernitatea batuko dira, ikerketa eta entretenimendua aldi be-

rean: bertsoa, txalaparta, alboka edo txirularen aintzinako soinuak munduko beste perkusio instrumentuekin nahastuko dira eta, lanaren gaurkotasunaren adierazgarri, musika elektronikoaren baliadibe batzuk ere izango dira ikusgai. Konexio eta fusio handi honi, gainera, ibilbide luzeko Angel Unzu gehituko zaio.

Khami-ren lehen proiektua txistuan oinarrituta bazegoen, Mugak deitutako bigarren lan honen protagonistak kantua eta perkusioa izango dira, batez ere. Orduan ere, argitaratutako "Bazzque World Sounds"-ean goi mailako hainbat musikari batu bazituen taula gainean, Iñaki Salvador pianista edo Garikoitz Mendizabal txistularia, esaterako. Bigarren lan honetan Kalakan taldearekin batu dituzte indarrak, magia eta energiaz betetako proiektua sortzeko. Kontzertuan *Haika Mutil*, *Binbili-Bonbolo* edo *Goizean goiz jeikirik* abestien moldaketa berriak entzungai izango dira eta, euren batera, *Larre berrian* edo *Munduan Malerousik* bezalako abesti ia ahaztuak, kontzerturako pentsatuak izan diren beste hainbat abesti original berriekin batera.

Carlos Sagik (perkusoia, elektronika eta teklatuak) zuzendutako lanean, Iraide Ansorenak (perkusoia), Angel Unzu (gitarra elektrikoa, akustikoa, perkusioa eta bouzoukia) eta Kalakan Traditional Trioko hirukoteak hartuko dute parte. Jamixel Bereau (kantua eta perkusioa), Xan Errotabehere (kantua, perkusioa, txirula eta alboka) eta Pierre Sangla (ahotsa eta perkusioa) dira 2009an sortutako

taldearen kideak, eta 2012an Madonnak egindako mundubiran parte hartu zuten. Baita haren kantu ezagun batzuen moldaketak Kevin Antunes musika zuzendariari enkargatu eta, euskaldunei ohore eginez, Madonnak taldearen *Sagarra jo* kantuen kopia bat euskaraz kantatzea erabaki zuten.

Iraide Ansorenak eta Carlos Sagik sortutako Khami, bestealde, garrantzi eta maila handiko artista euskaldunen topagune gisa sortua izan da: hor jardun dute Iñaki Salvador, Garikoitz Mendizabal, Luis Gimenez, Kike Arza eta Gari Otamendi dantzariak, esaterako. Euskal herri-kulturaren aztarna berezko eta sustraituenen bilaketa lana egiten dute, euskal folkloreak munduko beste zenbaitekin dituen parekotasunak aurkituz. Gainera, txistua inoiz egon ez den erregistro musikal berri batean kokatu zuten euren lehen proiektuan. 2015eko hasierako proiektu hartatik ibilbide luzeko musikariekin egindako elkarlanean, panorama internazional zein nazionalerako beste artista eta entitate famatu askorekin lan egin dute: Perico Sambeat, Carlos Nuñez, Michel Camilo, Jorge Pardo, Kepa Junkera, Aaron Goldberg, eta Euskadiko-Galiziako eta San Petersburgoko Orkestrak, esaterako.





## VIRGINIA ARAKISTAIN: (argazkilaria)

### - *Nolako argazkiak aukeratu dituzu Topalekuko erakusketarako?*

Arkitekturari lotutako erakusketa da. Asko gustatzen zaizkit lineak, formak eta hiriak isladatzea. Orohar, arkitektua modernoaren aldeko apostua egin dut oraingoan. Munduko leku askotako hiriak agertzen dira: Bartzelona, Bilbo, Londres, Palermo, Venezia... Eibarko Alfa eta Coliseoaren irudiak ere aukeratu ditut. Paisajeak eta beste era batekoak ere ateratzen ditut, baina nahiko urbanita naiz, asko disfrutatzen dut hirietako bizitza isladatzen, eta hirietan ateratako material asko daukat.

### - *Argazki batzuetan erraz ikus daiteke non ateratakoak diren; beste batzuekin, oster, zailagoa da.*

Erakusketako argazki batzuetan detailak agertzen dira, adibidez San Telmoko fatxadaren detailak edo zati bat, edo Coliseo antzokiko tximenea, baina beste batzuetan argazki "irekiagoak" dira eta

## "Hirietako bizitza isladatzea gustatzen zait"

Maiatzaren 27ra arte Virginia Arakistain argazkilaria eibartarraren lanak ikusteko aukera izango dugu Topalekuan, Argazkilaritza Maiatzean ekimenaren barruan antolatutako erakusketan. Aspaldi buruan zeukan ideiatik abiatuta –hiriak eta hirietako bizimodua– zuribeltzeko 28 argazkiz osatutako erakusketa bikaina prestatu du Klub Deportiboko argazkilariak, horien artean 2009an I. Ojanguren Saria eskuratzeko balio izan ziona. Ezin dugu ahaztu sari hori irabazi duen eibartar bakarra izateaz gain, oraingoz lehiaketako emakume irabazle bakarra dela Virginia Arakistain.

hauetan argi ikus daiteke non ateratakoak diren.

### - *Zein irizpide erabili dituzu erakusketa antolatzeko?*

Hasieran argazki itxiagoak jarri ditut eta gero zabaltzen doaz, hau da, hasierakoetan detailak erakusten ditut eta gero pixkanaka enkuadre zabalagoak dituztenak jartzen joan naiz. Eta guztiak zuribeltzekoak dira. Zuribeltza lantzea gustatzen zait. Esan dezaket oso gustora gelditu naizela emaitzarekin.

### - *Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko kidea zara orain dela urte mordo. Zer eman dizu taldeak?*

1993an egin nuen nire lehen ikastaroa Unibertsitate Laboralean Jose Valderreyekin. Ikastaroa amaitu eta Deportiboan sartu nintzen eta hor jarraitzen dut, ikasten, praktikatzen eta, aldi berean, argazkilaritza besteei ezagutzen ematen. Nik talde honetan ikasi dut dena eta oso gustora egoten naiz. Nire-

tzako argazkilaritza hobby bat da eta taldean egotea oso garrantzitsua da: askotan elkarrekin joaten gara erakusketak ikustera eta eurekin bidaiak egiten ditut, esate baterako Bakarne Elejaldeekin, argazkiak ateratzeko.

### - *Beraz, beti kamara gainean eramaten duzun horietako zara.*

Lagunekin bidaiatzen dudanean ere, beti eramaten dut kamara bat gainean, nahiz eta txikiagoa izan. Batzuetan gertatu zait kamara gabe egotea eta argazkiak "ikustea" edo zuribeltzean imajinatzea, eta pena handia ematen dit ezin ateratzeak.

### - *Gaur egun argazkiak erretoke askorekin ikusten ditugu...*

Argazkiak errebelatzeko eta artxiboa antolatzeko ordenadoreko erramintak erabiltzen ditut, eta horretarako pazientzia handia daukat, baina Photoshopa edo erretokea ez dut apenas erabiltzen, ez zait larregi gustatzen.

## Espainiako Argazkilaritza Konfederazioaren errekonozimendua jaso du Palaciosek

Asteburuan biltzarra egin zuen Euskal Herriko Argazkilaritza Taldeen Elkargoak, Iruñean, eta ekitaldian Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko Juan Antonio Palaciosek Espainiako Argazkilaritza Konfederazioaren Maisu titulua jaso zuen. Zorionak!



## Begiak itxita ere ederto gozatu zuten izozkiekin

Esperientzia paregabearekin gozatzeko aukera izan zuten eguazten arratsaldean...eta kitto! Euskara Elkartearen egindako izozki dastaketan parte hartu zutenek: izozkiak artisau eran egiten dituen Gelati Gelati etxetik zapore ezberdinetako izozkiak ekarri zituzten eta, begiak itxita, saiora joandako ume zein helduek banan-banan probatu zituzten, ondoren zaporea zein zen asmatzen ahalegintzeko: Donutsa, azenarrio-pastela, masusta, gin tonica... zapore kontuetan mugarik ez dagoela argi laga zuten Illunabarrian programaren baitan antolatutako dastaketan!








## Urdaibaira bost eguneko akanpada antolatu dute DBHko ikasleentzat

Udalak Urdaibaian 5 eguneko akanpada antolatu du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako nerabeentzat. Uztailearen 16tik 20ra bitartean izango da eta, izena ematen duten gazteek hainbat ekimenetan parte hartzeko aukera izango dute: paddel SUP, piragua, hondartza, mendi ibilaldiak... Aurrematrikula maiatzaren 14tik 20ra egin daiteke, internet bidez, [www.astixa.eus](http://www.astixa.eus) webgunean. Behin betiko matrikula eta bilera informatiboa, berriz, ekainaren 20an egingo dituzte, 15:00etan Indianokua gaztelekuan. Akanpadaren prezioa 75 eurokoa da, ume bakoitzeko (neba-arreben kasuan, 65 eurokoa bakoitzeko).



## Liburutegiak ordutegi berezia izango du astelehenetik aurrera

Ikasturtearen amaiera gero eta gertuago dago eta, horrekin batera, ikasleei azterketetarako prestatzen joateko sasoia ailegatu zaie. Hori dela eta, Juan San Martin liburutegiak ordutegi berezia izango du astelehenetik aurrera: goizeko 09:00etatik 20:30era zabalduko dituzte liburutegiko ateak, astelehenetik barixakura, horrela han ikasi nahi dutenek denbora gehiago izateko. Ordutegi berezia ekainaren 29ra arte egongo da indarrean (ekainak 25ean, baina, ez dute zabalduko). Bestalde, ekainaren 16tik urrira bitartean liburutegia asteburuetan itxita egongo dela adierazi dute arduradunek.

## "Arteterapia eta feminitateak" tailerra

Maiatzaren 18rako "Arteterapia eta feminitateak" tailerra antolatu dute Arrate Kultur Elkarteak, 18:00etatik 20:30era. Arduradunen berbetan, "feminitatearekiko ditugun sinismenak birplanteatu eta propioak eraikitzeko asmoz, arte medio ezberdinak erabiliz garatuko da tailerra". Izena emateko, 610980628 telefonora deitu edo [e.arteterapia@gmail.com](mailto:e.arteterapia@gmail.com) helbidera idatzi.



## Saio biribila eman zuen Sostoa

Aurreko asteburuan eman zuen Sostoa abesbatzak kontzertu sakroa, Karmengo Amaren elizan. Abesbatzak hasi duen etapa berrian eskaini duen lehen emanaldia izan zen.

## Legarreko bertso-bazkarirako txartelak

Legarre-gain elkarteak maiatzaren 19an egingo den bertso bazkarirako txartelak domekara arte eros daitezke, Bolintxon eta Legarre Beheko fruta dendan (20 eurotan helduek, 10 eurotan umeek). Parte hartuko duten bertsolariak Manu Goigana eta Jokin Bergara dira eta gai-jartzailea, berriz, Desi Magro.

## Txistularien kontzertua domekan

Usartza txistulari taldeak kontzertua emango du domekan, 12:30ean, udaletxeko arkupeetan. Besteak beste, "Rapsodia 1 eta 2", "Minueto", "Kito" eta "El roble y el ombú" doinuak joko dituzte.

## JUANA INCIARTE SAN VICENTE

(Adolfo Jainagaren alarguna)

1935-III-7 / 2018-V-5



"Amama, ez zaitugu inoiz ahaztuko"

ETXEKOAK



## Euskera eta Lanbide Heziketa ardatz izan zituen mintzodromo arrakastatsua

Eguazten goizean Untzagan egindako mintzodromoak jende asko erakarri zuen eta, parte hartzera animatu zirenak goiz osoan ibili ziren joan-etorrian, etenbarik. Ekimenaren abiapuntua Lanbide Heziketan urtero errepikatzen den hizkuntza-jarrera izan da. Izan ere, euskeraz ikasteko aukera izanda ere, ikasle gehienek Lanbide Heziketa gazteleraz egitea nahiago dutela ikusi dute Armeria Eskolan zein Uni Eibar-Ermuan eta, horrekin kezkatuta, Udalarekin, euskara elkarteekin, DBH eskaintzen duten ikastetxeekin eta enpresekin elkarlana sustatu nahi dute eta bide horretan antolatu dute aste honetako mintzodromoa Udalarekin eta ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean, *"ikasleek gaztelerara aukeratzeko arrazoiak zeintzuk diren jakiteko eta euskeraren alde lan egiteko bideak zehazteko asmoz"*.



Aste honetan egindako mintzodromoaren unea, herenegun goizean. Ekhi Belar

## Zabaldutuzte Argazkilaritza Maiatzean-eko erakusketa guztiak

Aurreko barixakuan sartu ziren bete-betean Argazkilaritza Maiatzean-eko egitarauan Deporreko Argazki Taldekoak, ia aldi berean bederatzi erakuske-

ta zabalduta: Portalean Eulalia Abaitua, Oskar Manso eta Felix Marban argazkilarien lanak ipini dituzte ikusgai; Deporreko Argazki Taldeko kidea den Virginia

Arakistainen lanak, berriz, Topalekuan ikus daitezke; Eibarko Klub Deportiboko beste kideen erakusketa kolektibo bana El Ambigú eta Portalea tabernetan daude; Klub Deportiboaren tabernan, Argizaiola Sariaren azken ediziora aurkeztutako lanetako batzuk bildu dituzte; eta garrantzi handiko lehiaketekin jarraituta, Untzagako Jubilatutako Nazioarteko Gipuzkoa Sarira aurkeztutako beste lan batzuk ikus daitezke; eta erakusketa-ibilbidea biribiltzeko, El Corte Ingleseko erakusketa aretoan Miguel Parreñoren argazkiak daude. Erakusketa guztiak hilaren azken egunetaraino egongo dira zabalik. Bestalde, egitarauaren baitan Gonzalo Azumendirekin egingo den "Munduko argazkiak" tailerra bihar izango da, Portalean.




Aurreko barixakuan inauguratu zituzten Portaleako erakusketak. Maialen Belaustegi

## "Enperadoaren jantziak" antzezlan eskainiko dute eguenean

Debabarreneko Eskolarteko XXXIV. Antzerki Jardunaldien barruan eguenean "Enperadorearen jantziak" lana aurkeztuko dute Lekim Animaciones taldekoek, 15:00etan, Hezkuntza Esparruan (sarrera doan da). Hans Christian Andersenren obra batean oinarritutako lana euskeraz taularatuko dute eta 3 urtetik gorakoentzat egokia da. Nerea Ariznabarreta eibartarrarekin batera, Eñaut Gorbea, Juanma Rodriguez eta Mikel Areitio antzezleek egingo dute lan ia ordubeteko iraupena duen ikuskizunean, Susana Toscanoren zuzendaritzapean. Bestalde, azken orduko aldaketa egon da egitarauan eta, astelehenerako programatuta zegoen "Alberti, un mar de versos" lana bertan behera laga behar izan dute antolatzaileek. Dena dela, lana hurrengo udazke



eguraldia (EUSKALMET.NET)



**Debabarreneko Orfeoia eta Pispillu Abesbatza ERMUAN**

Bihar iluntzean kontzertu berezia emango dute Ermuan DBOR Debabarreneko Orfeoia eta Ermuko Pispillu Abesbatzak, Minbiziaren Aurkako Elkartearen Ermuko taldeak 20 urte betetzen dituela ospatzeko eta, bide batez, boluntarioek osatutako elkarteak urte hauetan egindako lana eskertzeko. Kontzertua Ermuko Santiago Apostoluaren elizan izango da, 20:30ean, eta jende guztia gonbidatu nahi dute.

**Kantu eta Dantza Eguna ELGETAN**

Elgeta Kantuan, Herrixa Dantzan eta Elgetako Udalak maiatzaren 20rako Kantu eta Dantza Eguna antolatuko dute Elgetan. 12:30ean plazan harrera egin eta 13:00ean kantu-jira hasiko da. 14:30ean kantu-bazkaria egingo dute kiroldegian eta 18:00etan Herrixa Dantzan dantzaldia hasiko da, Jainaga eta Narbaizaren musikarekin eta Patxi Monterok gidatuta. Kantu-jiran Arrasate, Aretxabaleta, Eibar eta Elgetako kantuzale taldeek hartuko dute parte eta bazkarian 80 bat lagun bildu ohi dira. Bazkarirako txartelak alde aurretik erosi behar dira (azken eguna maiatzak 15 da). Txartelak 20 euro balio du eta Elgetako udaletxean erosi daitezke. Bestela, Elgetako Udalaren 3035.0009.11.0090900039 Laboral Kutxako kontuan alde aurretik dirua sartu behar da, izen-abizenak eta "bazkaria" ipinita.

**hildakoak**

- Dolores Cano Trueba. 83 urte. 2018-IV-23.
- Francisco Sanabria Barahona. 84 urte. 2018-IV-28.
- Juana Inziarte San Vicente. 83 urte. 2018-V-5.
- M<sup>a</sup> Paz Loidi Erkizia. 85 urte. 2018-V-6.
- Txaro Yarritu Diaz. 52 urte. 2018-V-7.
- Felix Ormaetxea Zubillaga. 87 urte. 2018-V-8.

**jaiotakoak**

- Jack Harrison Palacio. 2018-IV-23.
- Yara Harmane. 2018-V-2.
- Hafsa Afassi el Hakkouni. 2018-V-5.

**farmaziak**

- Barixakua 11  
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Zapatua 12  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 13  
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Astelehena 14  
EGUNEZ Mandiola (San Agustin, 3)
- Martitzena 15  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Eguaztena 16  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 17  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Barixakua 18  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

GAUEZ BETI -2018AN-  
 Lafuente (Sostoatarren, 10)

**SUDOKUA**

AURREKOAREN  
 EMAITZA

4	7	5	6	9	8	3	2	1
9	1	8	5	2	3	4	7	6
6	2	3	1	7	4	5	9	8
1	8	9	2	3	5	7	6	4
5	6	4	7	1	9	2	8	3
7	3	2	4	8	6	1	5	9
8	5	6	3	4	7	9	1	2
2	4	7	9	6	1	8	3	5
3	9	1	8	5	2	6	4	7

9				7	3	8		
	4							1
		6						
5	2			8	4			
		8		1		9		
		7	3			2		6
						3		
6							4	
		5	4	6				9

**telefono jakingarriak**

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

## Barixakua 11

### MUSIKA

**18:30.** Musika Auzorik Auzo: Arno eta dantzariak. Azitaingo parkean.

### MUSIKA

**19:00.** Hiru Zapatilla eta Silvio eta Rodriguez taldeen emanaldiak. Tarte kafetegian (Legarre, 19).

### GURE ESKU DAGO

**19:00/20:30.** Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.

## Zapatua 12

### TAILERRA

**10:00.** "Emakume musulmanak, arrazakeria eta sexismoaren aurka". Andretxean.

### GURE ESKU DAGO

**10:00/15:00.** Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea eta informaziorako mahaia. Untzagan.

### TAILERRA

**10:00/14:00 eta 16:00/20:00.** "Munduko argazkiak", Gonzalo Azumendirekin (Argazkilaritza Maiatzean). Portalean.

### EIBAR FT-REN JAI

**10:30.** Iker Amutxastegi I. Saria (infantil mailakoa). Ipuruako anexoan.

**11:00/16:00.** Umeendako puzgarriak. Anbulatorioko parkean eta Ego Gainen.

**12:00/18:00.** Photocalla, Eibar taldeko kamiseta erraldoiarekin.

**12:10.** Trikipoteoa, Guriditik abiatuta.

**15:00.** Bazkaria.

Untzagako arkupeetan.

**16:00/18:00.** Globoflexia gorri-uridin erakustaldia.

**16:30/18:15.** Kalejira, elektrotxarangarekin.

**18:25.** Garaikurra Sergi Enrich jokalaritari ematea.

**21:00/02:30.** Musika: Alex del Toro DJ, Marlon eta La Oreja de Van Gogh taldearen kontzertua. Untzagan.

### IKASTAROA

**10:30.** Dantza afrogaraiakidea ikastaroa. Arrate Kultur Elkartearen.

### ASANBLADA

**12:30.** Ekainaren 10ean Gure Esku Dagoren ekimenez osatuko den giza-katearen harira, gazte koadrilei informazioa emateko. Hirurok taberna aurreko parkean.

### IKASTETXEETAKO PATIOAK ZABALTZEA

**16:00/20:00.** Arrateko Andra Mari, Amaña eta Urkizu patioak zabalduko dituzte.

### KALEETAN KANTUZ

**19:00.** Abesbatzaren kantu irteera. Ipuruan.

### MUSIKA

**20:30.** "Mugak", Khami eta Kalakan taldeekin. 12 euro (8'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

## Domeka 13

### MUSIKA

**12:00.** "Belaunaldien arteko topaketa", Ikasten, Kaleetan Kantuz eta Musika Eskolako eskutik. 3 euro. Coliseoan.

### MUSIKA

**12:30.** Usartza txistulari bandaren kontzertua. Untzagan.

## Astelehena 14

### TERTULIA

**17:00.** "Descubriendo tu poder personal", Eskar Larrinagarekin. Pagatxa elkarteak antolatuta. Sarrera libre. Portalean.

### IKASTAROA

**19:30.** Larrain-dantza (53. Euskal Jaia). Arrate Kultur Elkartearen.

## Martitzena 15

### IKASTEN

**10:00.** "Euskal Naturaren altxorrak" hitzaldia, euskeraz, Zigor Arteagaren eskutik. Armeria Eskolan.

### SAN ISIDRO JAI

**11:00.** San Isidro eguna. Meza, bertsolari eta Baltzola Anaiak trikitilariekin. Ondoren, prozesioa eta aureskua, Kezka Dantza Taldearen eskutik.

Sagarmiña "Getariko Txakolina", Flysh "Getariko Txakolina", sagardoa, Mausitxa, Sosola, Egixa eta Goienetxe ardi gaztak, Egotza ahuntz gazta eta aire librean hazitako basatxerri ezaugarria duten txerriekin dastaketa.

**12:30.** San Isidroetako XVI. Aizkolari Txapelketa. Tartekaturik,

harrijasotzaileen saioa.

**14:30.** Bazkaria, Kantabria jatetxean. Jarraian, bertsolariak eta trikitilariak.

**17:30.** Idi demak, Oliden, Zubibarri eta Txokolateren partaidetzarekin. Arraten.

### IKASTEN

**16:00/19:00.** Punto-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

## Eguaztena 16

### IKASTEN

**09:12.** Ibilaldia: Deba-Mutriku-Galdona-Ondarroa. Bazkaria eraman. Trenaren irteera ordua, Ardantzatik (Estaziñotik 09:14ean).

### IPURTERRE

**10:00.** Ipurterre ipuin eta literatur lehiaketako sari banaketa. Hezkuntza Esparruan.

### MUSIKA

**19:00.** J.B. Gisasola Musika Eskolako ikasturte amaierako kontzertua. 3 euro. Coliseoan.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### DANBORRADA

**19:00.** San Juan jaietan umeen danborradan parte hartuko dutenentzat entsegua.

**20:00.** Helduen danborradarako entsegua. Bittor Sarasketa kalean udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean).

## Eguena 17

### IKASTEN

**10:00.** "Mujer y trabajo" hitzaldia, Garbiñe Biurrunen eskutik. Armeria Eskolan.

### ANTZERKIA

**15:00.** "Enperadorearen jantziak" (Lekim, Bizkaia). Debarbarreneko Eskolarteko XXXIV. Antzerki Jardunaldien barruan. Hezkuntza Esparruan.

### KALEETAN KANTUZ

**17:00.** Dantza (beheko maila).

**18:00.** Dantza (maila altua).

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### ODOL-EMATEA

**18:30.** Gipuzkoako Odol-emaileen Elkartearen odol-ateratzea, anbulatorioan.

### GURE ESKU DAGO

**19:00/20:30.** Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.

**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, **JULEN!!!**, gaur 2 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi-haundi bat gure txapeldunarentzat, etxekuen partez.




Zorionak, **CAROL**, hillaen 6xan gure etxeko erreginak 3 urte egin zittuan-eta. Musu pilla bat famelixaren partez!



Zorionak, **AMAIA**, domekan 3 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Gorka eta Juneren partez.



Zorionak, **EÑAUT**, gaur 7 urte betetzen dozuz-eta: Patxo potolo bat etxekuen eta, batez be, Ekhiaren partez.




"Zorionak, **IRATI**, printzesa, domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat aitta, ama eta, batez be, Naiaren partez.




Zorionak, **ANDER**, gaur 3 urte egitten dozuz-eta. Jarraitu hain irribarretsu! Aitta, ama, aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, **IKER**, hillaen 7xan 5 urte bete zenduazelako. Musu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Oihanen partez..



Zorionak, **UNAI**, gaur 12 urte egitten dozuzelako. Familixa guztiaren partez.



Zorionak, **LIBE**, bixar 3 urte beteko dozuz-eta. Patxo erraldoi bat etxekuen eta, batez be, Inhar eta Martxelen partez.



Zorionak, **DANEL**, gaur 11 urte egitten dozuz-eta. Musu bat etxekuen eta, batez be, anaixa Aner eta Noa eta Lukaren partez.



Zorionak, **MAIALEN**, domekan 9 urte beteko dozuz-eta. Segi oin arte moduan, gure kuttuna izaten, mundiala zara-eta.



Zorionak, **IBAI** (bixar 8 urte egingo dozuz) eta **MAREN** (hillaen 3an urtetxua bete zenduazan). Musu haundi bat famelixaren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**12an: 22:30**

**13an: 17:00**

**14an: 20:30**

**"Un lugar tranquilo"**

Zuzendaria: John Krasinski



**(1 ARETOAN)**

**12ean: 17:00, 19:45**

**13an: 17:00, 20:00** (Antzokian)

**14an: 20:30** (Antzokian)

**"Proyecto Rampage"**

Zuzendaria: Brad Peyton



**(2 ARETOAN)**

**12an: 19:45, 22:30**

**13an: 17:00, 20:00**

**14an: 20:30**

**"Mi querida cofradía"**

Zuzendaria: Marta Díaz



**(2 ARETOAN)**

**12an: 17:00**

**13an: 17:00** (Antzokian)

**"El príncipe encantador"**

Musika: Ross Venokur



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.2. Errentan

- Matrimonioak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 664-823992.
- Familia arduratsuak 3 logelako pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 632-426847.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren, 2 logelarekin. Erreferentziak. Tel. 667-060292.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia edo trasterodun garaje marraduna hartuko nuke alokairuan Ipu-ruan edo Legarre inguruan. Tel. 646-369330.
- Pabilioi industrialak alogagai Elgoibarko Olaso poligonoan, solairuarekin. 200+70 m<sup>2</sup>. Instalazioarekin. Tel. 649-258913.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko asteburuetan. Orduka. Tel. 632-524180.
- Neska eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Interna. Tel. 634-709827.
- Gizona eskaintzen da kamarero jarduteko (esperientzia) eta nagusiak zain-zeko. Tel. 605-469989.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 631-706846.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 643-138471.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko. Tel. 642-595265.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Tel. 600-099460.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Gida-baimenarekin. Tel. 678-213696.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zain-zeko. Esperientzia. Tel. 689-855193.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Esperientzia. Tel. 635-587617.
- Neska eskaintzen da nagusiak zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Tel. 603-498605.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarak egiteko. Tel. 666-197831.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko (baita gauzez ere) eta garbiketarak egiteko. Tel. 631-891709.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zain-zeko, baserrian lan egiteko, igeltsero-laguntzaile jarduteko eta garbiketarak egiteko. Tel. 684-173729.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Tel. 629-889465.
- Neska eskaintzen da lan egiteko. Interna. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-565350.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko. Tel. 688-635166.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Tel. 688-261395.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-377989.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 643-225084.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-952947.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zain-zeko eta pintore lanetarako. Tel. 631-104714.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-840833.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zain-zeko. Tel. 612-411026.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Tel. 612-482203.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Tel. 632-835745.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 697-809908.
- Mutila eskaintzen da igeltsero jarduteko eta inguruak zain-zeko. Tel. 631-665008.
- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko, garbiketarak egiteko eta pegorak garbitzeko. Tel. 602-022174.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko. Tel. 602-493758.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Formazioa eta esperientzia. Tel. 671-989434.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Tel. 664-337457.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zain-zeko eta animaliak pasiatzeko. Tel. 642-827097.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zain-zeko eta animaliak pasiatzeko (arriskutsuak gobernatzeko lizentziarekin). Orduka. Esperientzia. Tel. 664-823992.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 631-258718.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 612-469029.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zain-zeko eta lore-zain edo margo-lanak egiteko. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko. Tel. 611-274429 eta 611-274451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-374132.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zain-zeko. Tel. 687-114707.

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zain-zeko arratsaldez. Tel. 617-571210.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Tel. 699-535728.
- Gizona eskaintzen da margoketa-lanak, garbiketarak... egiteko. Esperientzia. Tel. 602-845202.
- Neska eskaintzen da umeak zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-436462.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zain-zeko. Baita gauzez ere. Tel. 685-570813.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zain-zeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 665-441723.
- Emakumea eskaintzen da kamarero jarduteko eta umeak zain-zeko. Tel. 643-006414.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan eta nagusiak zain-zeko. Tel. 643-272978.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan eta nagusiak zain-zeko. Tel. 643-272989.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko. Tel. 603-634777.
- Neska eskaintzen da nagusiak zain-zeko. Interna. Tel. 633-351705.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zain-zeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 722-562241.
- Neska eskaintzen da pisuak, bulegoak edo pegorak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zain-zeko arratsaldez. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 650-152866.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- LH eta DBH klase partikularrik ematen ditut. Euskaraz, gaztelerez edo ingelesez. Banaka eta taldeka. Tel. 685-282496.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- LG mugikorra galdut Errebal eta Legareren artean. Liburu estalki beltzarekin. Aurkitu baduzu, deitu. Tel. 943-201294.

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eu

# Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€tik aurrera

SANTA FE 26.715€tik aurrera

KONA 13.990€tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratu duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

**OARSO CAR**  
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO  
[www.oarsocar.com](http://www.oarsocar.com)

**ELGOIBAR**  
**OIARTZUN**  
Lintzirin Poligonoa, 1  
943 49 48 30

**Olaso Polig., 17**  
**BEASAIN**  
Errepe Nazionala, 1  
943 80 40 54

**943 74 14 80**  
**IRUN**  
Juan Thalamas, 43  
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO<sub>2</sub> emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4x2 BLUE2 ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4x2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4x2 ESSENCE (13.990€) autobentat. BEZ, garrailoa, matriculazio-zerga, sustapeneko deskontua, partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertuta eta onartu behariko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Irusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantentzeak ibilgailuaren finantziatzailei lotuta. \* Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko Hyundai ibilgailuei soilik aplikatuko zaio, zerbitzu-pasaporteen baldintzen arabera. Kontsultatu itzazu eskaintza, mantentzeak eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) web-orrian.

Lanerako gertu!

2018-2019

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

**MGEP**

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ  
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

## Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 23 18:00

## Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

[www.mondragon.edu/gmh](http://www.mondragon.edu/gmh)  
[gmh.mgep@mondragon.edu](mailto:gmh.mgep@mondragon.edu)  
943 71 21 91



# Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure  
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure  
laborategian diseinatzen dugu.



Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar  
[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)